

AIARALDEA *hemen*



ENERGIA BERRIZTAGARRIAK:
Sektore Planak 20 azpiegitura energetiko handi aurreikusten ditu Aiaraldean 2-7 or.

BURU OSASUNA:
Asasamek eskualdean dagoen baliabide falta kritikatu du 18-21 or.



Glavista: desjabetzea da konponbidea?



SKODA

Garaje Yas

Zure betiko kontzesionarioa, marka berriarekin

EZAGUTU GURE SALDU OSTEKO
SKODA ZERBITZUAK ETA TAILERRA



www.garajeyas.net

Iritxusi kalea 1, AMURRIO

Tel.: 945 890 334



erreportajea



Energia berriztagarrien bonbardaketa Aiaraldean; hogei proiektu eoliko eta fotovoltaiko

Arantxa Tapia buru duen Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko Sailak hainbat proiektu fotovoltaiko eta eoliko eraikitzea aurreikusi du Aiaraldean eta bere asmoek udalen eta administrazio batzarren zein herritarren alarmak piztu dituzte.



Testua **Aitor Aspuru Saez**

Trantsizio energetikoaren kontzeptu abstraktua gauzatzeko hamai-ka modu dago, komunitate energetikoetatik, azpiegitura erraldoi industrialetara, eta azken bide hori hartu du Arantxa Tapiak, onartu nahi duen Energia Berriztagarrien Sektore Planarekin. Helburu horrek alarmak piztu ditu hainbat udal, administrazio batzar eta herritarren artean, zeinek ehunka helegite aurkeztu zituzten uztailean plan horren hasierako onarpenaren kontra.

Zer da Sektore Plana?

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko Sailak sustatu duen dokumentuak balio-ko du lurralde antolamendua arautzeko energia berriztagarrien esparruan, eta polemika ugarirekin heldu da erreperatu dieten herritar eta erakundeen artean. Izan ere, dokumentuak Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde osoa sailkatu du energia berriztagarrien azpiegiturak eraikitzeko; eskala handikoak, ertainekoak eta txikikoak.

Eskala handiko egitasmo eolikoek 5 aerosorgailu edo gehiagokoak dira eta 30 MW edo gehiago ekoizteko gaitasuna dutenak. Eskala ertainekoak edo txikikoak irizpide horien azpitik daude.

Proiektu fotovoltaikoei dagokienez, handiek 10 hektarea edo gehiago hartuko dituzte eta 5 MW edo

gehiago sortuko dituzte eta ertainak eta txikiak langa horietara ez dira helduko.

Hori aintzat hartuta, Ekonomia Garapen Sailak lurraldea sailkapen mota ezberdinetan zatitu du. Sailkapen edo kategoria garrantzitsuenak eta berehalako eragina izan dezaketenak Kokapenerako Zonalde Hautatuak dira, zeinetan plana onartu bezain pronto, enpresa pribatuek zuzenean eskatu ditzaketen baimenak toki horietan azpiegitura energetikoak jartzeko.

Eusko Jaurlaritzako Sailak, hortaz, eremu horiek desjabetu eta interes pribatuen esku utziko lituzkete bere kudeaketarako, erabakita interes orokorreko proiektuak direla. Horrek, praktikan, suposatuko du lursail komunak eta pribatuak, maiz lehen sektoreari lotuta daudenak edo basoak direnak, bere jabe publiko edota pribatuei kentzea energia enpresei lagatzeko.

Horrelako hogei zonalde baino gehiago zehaztu ditu planak Aiaraldean eta batzuk aski esanguratsuak dira eskualdean, esaterako, Ganekogorta eta bere inguruak, Etxaurren Baselizako alboko magaletako bat, Etxaurren Ikastolako inguruak Menagarairantz, Txibiar-te, edota Letoko basoaren alboan dauden zelaiak.

Edonola ere, planak lurralde osoa sailkatzen du energia ekoizteko gaitasunaren arabera. Horrela, Kokapenerako Zonalde Hautatuak dira, Jaurlaritzaren aburuz, ezinbestekoak izango direnak, baina

badaude gaitasun handikoak, ertainekoak, txikikoak eta oso txikikoak, eta, horietan ere, proiektuak ezartzeko proposamenak jasoz gero, erakundeak erabakiko du baimentzea edo ez.

Planean ez dauden proiektuak

Aurreko klausulak zer nolako ondorioak izan ditzakeen irudikatzeko, kontuan hartu beharra dago Energia Berriztagarrien Sektore Planak ez dituela jasotzen Aiaraldean dauden proiektu eoliko gehienak. Aiaraldeko Mendiak Bizirik plataformak salatu du horren harira: “Planak islatzen duena oso latza da, proiektu pilo kokatu nahi baititu intereseko gune ekologiko eta kulturaletan, baina larriena ez da hori, baizik eta agertzen ez dena. Izan ere, Larragorri edota Ferosca I eta II azpiegitura eoliko industrialak ez dira agertzen inon. Horrek esan nahi du modu paraleloan kudeatzen ari diren hainbat proiektu ez dituztela jaso gatazkak ekiditeko”. Aiaraldeko Mendiak Bizirik egitasmo eolikoak azpimarratzen baditu ere, gogoratu beharra dago planak ez duela Ekiola proiektua aipatu. Arabako Foru Aldundiak hitzaldiak eskaini zituen hori azaltzeko Aiaraldean eta helburua da Saratxon 3.000 metro karratu baino gehiago plaka fotovoltaikoekin betetzea.

Energia Berriztagarrien Sektore Planaren kontrako berrehun helegite baino gehiago aurkeztu dituzte Aiaraldea udalen, administrazio batzarren eta herritarren artean

Gardentasun eza

Horri lotuta, Aiaraldeko Mendiak Bizirik zein eskualdeko zenbait udalek nabarmendu dute Energia Berriztagarrien Sektore Plana bultzatzeko egon den erabateko gardentasun falta. Izan ere, bere argitalpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian maiatzaren 20an izan zen. Hau da, udal hauteskundeak hasi baino astebete lehenago. Aintzat hartu beharra dago helegiteak aurkezteko epea 45 egun baliodunekoa zela, eta hauteskunde ondoan udal gobernu taldeak funtzioetan egon zirela ekainaren 19ra arte, alkate eta zinegotzi berriek ardurak hartu arte.

Funtzioetan aritzean, administrazio arrunteko gaiak baino ezin dituzte landu alkateek eta zinegotziek eta ezin dituzte ondorengoen jarduna baldintzatuko duten erabakiak hartu. Ondorioz, helegiteak aurkezteko epe ia erdian inork ezin izan zuen landu Energia Berriztagarrien Sektore Plana. Gauzak horrela, Aiaraldeko Mendiak Bizirik plataformak eta bestelako erakunde eta eragile batzuek eskatu zitoten Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko Sailari epea luzatzea, baina erantzuna ezezko borobila izan zen.

Hain zuzen, parte hartze eta gardentasun falta hori izan da udal eta eragile askok azpimarratu dute-

Eusko Jaurlaritzak udal hauteskundeak baino astebete lehenago argitaratu zuen Energia Berriztagarrien Sektore Plana eta erakunde eta jende askorentzat oharkabean pasa zen

na. Berez, milaka orri osatzen dute Energia Berriztagarrien Sektore Plana eta 45 egun baliodunetan —edo gutxiagotan, azaldutakoagatik— nekez berrikusi daitezke agiri guztiak eta mapak.

Errealitate horrek isla izan zuen eskualdeko udalen eta eragileen jarreran helegiteak aurkezteko orduan, baina ez zen oztopo izan ehunka errekurtsio baino gehiago heltzeko Eusko Jaurlaritzara Aiaraldetik.

Esaterako, 117 alegazio herrikoiki eta 51 tekniko eraman zituen Aiaraldeko Mendiak Bizirik, deialdia zabaldu baitzuen herritarren artean horretarako.

Helegiteen bide korapilatsua

Arestian azaldutakoarekin, ataka anitzetan egon ziren udalak eta herritarrak helegiteak prestatzeko orduan. Amurriok eta Laudiok, berezko bitarteko nahikoak dituztenez, eurenak idatzi zituzten zarat berezirik eragin gabe, baina hori ez zen Aiara, Arrankudiaga-Zollo eta Urduñako kasua.

Aiaran ekainaren 19an sartu zen udal gobernu taldeak —gerora koaliziokoa izango zen, baina une horretan soilik EH Bildu— topo egin zuen Energia Berriztagarrien Sektore Planarekin eta bere egoera partikularrarekin. Alegia, eskualdeko Kokapenerako Zonalde Hau-



erreportajea

tatu gehienak Aiaran daude eta ehunka hektarea hartzen dituzte, gainera, batzuetan, toki enblematikoetan.

Planak hogei azpiegitura energetiko handi baino gehiago jasotzen baditu ere, iragarritako instalazio eoliko gehienak ez dira agertzen bertan

Ikusita errealitateak gainditzen zituela udaleko gaitasun teknikoak, kanpoko aholkularitza enpresa kontratatzeari ekin zioten eta horiekin batera Administrazio Batzar guztiekin deitu zuten bilera, planaren nondik norakoak azaltzeko. Hitzordu horretatik atera ziren bi egitasmo: Aiarako Udalak aurkeztutako helegitea eta tokiko 22 konzejuk egindakoak.

Arrankudiaga-Zollok, bestalde, Alonsotegi eta Arrigorriagako Udalekin batu zituen indarrak Ganekogortan instalatu nahi dituzten dozena bat baino gehiagoko aerosorgailuen kontra. Hiruren artean laurogei orrialdeko agiria aurkeztu zuten Eusko Jaurlaritzan, Energia Berriztagarrien Sektore Planaren oinarri metodologikoen akatsak eta gabeziak azpimarratuta arlo anitzetan; prozedura, elementu kulturalak eta naturalak aintzat hartu ez izana...

Egoera korapilatsuena, dena den, Urduñan gertatu zen. Helegiteak aurkezteko epea agortzetik gertu zegoela, Aiarako herritar batek jakinarazi zion Belandiako beste bati han eta Mendeikan proiektu fotovoltaiko bana eraikitzea aurreikusi duela Jaurlaritzak. Albistea azkar zabaldu zen Larruazabalgo Batzarrean eta handik gutxira bilera deitu zuten Belandian bertan. Bizkaiko Administrazio Batzarren ordezkariak eta herritarrek ez ezik, Udal ordezkariak ere parte hartu zuten eta sartu berri zegoen zinegotzietako batek argitu zuen tokiko erakundeak ez zekitelako ezer proiektuei buruz bilera deitu baino lehen. Udaletxean ez zeuden egitasmoen

ezjakin bakarrak, zenbait herritar bileran bertan konturatu baitziren euren lursailak desjabetzeko arriskuan zeudela.

Gauzak horrela, Urduñako Udalak helegitea prestatu zuen, eta Larruazabalgo Batzarrek eta 30 herritarrek ere errekursoak bidali zituzten Eusko Jaurlaritzara.

Helegiteen arrazoiak

Euskal Autonomia Erkidegoan milaka helegiteren uholdea sortu da Energia Berriztagarrien Sektore Planaren kontra. Herritarrek maiz euren egoera partikularrean izan dute abiapuntua; atsedean eskubidea ez dela errespetatu eta azpiegiturak euren etxebizitzaren alboan proiektatu dutela energia azpiegitura bat,

Ganekogortan, Etxaurrenen, Leto basoaren alboan edota Kamarakan hainbat hektareako okupazioa ekarriko du planak

lehen sektoreari lotutako lursailak ez ezjabetzeko exigentzia, edota kultura edota ondare ekologikoari lotutako elementuen babesa...

Udalek ere bide horiek ez dituzte baztertu eta gogoratu dituzte zein toki eta ekosistema babestu behar diren euren mugetan eta, esaterako, gogoratu dute animalien korridore naturalak ez direla kontuan hartu.

Beste argudio batzuk metodologikoagoak dira eta zalantzan jarri dituzte Arantxa Tapiaren Sailak baliatu dituen irizpideak Kokapenerako Zonalde Hautatuak izendatzeko. Horri buruz galdetu dio Aiaraldea Komunikabideak Karmele Poblacion Aiarako zinegotzari eta ordezkaria oso kritikoa izan

da bere udalerrian topatu duten egoerarekin: "Hautatu dituzten hainbat eremu ez dira bereziki egokiak energia sortzeko, hortaz, ez dugu ulertzen zergatik agertzen diren horrenbeste proiektu Aiaran. Gure susmoa da Murgan dagoen azpiestazio elektrikoa erabili nahi dutela enpresei errazteko elektrizitatearen salmenta, bestela, ezinezkoa da azaltzea".

Murgako inguruetan, hain zuzen, egoera ez da horren berria. Apirilaren 4an Olabezarreko Administrazio Batzarrek bozketa egin zuen eta Euskal Energia Erakundeak eta Krea enpresak egindako proposamenari ezezkoa eman zion. Bi eragileek 15 hektareako azpiegitura fotovoltaikoa jarri nahi zuten





lursail komunaletan eta zenbait herritarrek salatu zutenez, bozkatzeari ekin baino lehen mehatxatu zituzten: “Esan ziguten guk nahi edo ez, plakak jarriko dituztela. Bi aukera genituela azaldu ziguten: edo plakak eurekin jarri edo bestela Iberdrolak lursailak desjabetuko zizkigula”.

Parte hartzearen mespretxua

Energia Berriztagarrien Sektore Planak mahai gainean jarri duen eztabaidaren ardatzak anitzak eta mamitsuak dira. Alde batetik, zein energia eredu nahi duen gizarteak bere beharrak asetzeko —komunitarioa edo industrial— noren mesederako den eredu hori —energia enpresena edo herritarrena— eta

zeintzuk izan behar diren irizpideak, bai teknikoak zein kokapenak erabakitzeko unean.

Edonola ere, planak eragin duen ezinegonaren zati handia gardenetasun ezaren eta ezkutatzearen ondorioa da. Helegite teknikoek azpimarratu dute partaidetzaren metodologia zalantzan jartzeko modukoa dela eta herritarren ekarpenak ez direla jaso dokumentuan. Are gehiago, horiek bildu behar dituen esteka ez dago eskuragarri.

Dena den, okerreza zera da, planak berak ez duela estali parte hartze prozesuan jasotako ideia kritikoak baztertu dituela une batez ere baloratu gabe. Hau da, planak bakarrik eman ditu ontzat berarekin bat egiten duten iritziak eta

horrela adierazten du agiriak berak: “Jaurlaritzak proposatutako alternatibaren batez besteko balorazioa maila, eragileen pisua aintzat hartuta, ertain-altuko da. Udalen eta udal-talde politikoen balorazio kritikoagoa da. Zentzu horretan, garrantzitsua da kontuan hartzea udal eta talde gehienak ildo ideologiko zehatz batekoak direla, iritzi eta ekarpen horiek, baliadunak badira ere, ezin dira estatistikoki baliozkotzat jo”.

Paragrafo horrek sumatu daiteke, argi eta garbi, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko Sailak udalen iritziak ez dituela gogoko. Izan daiteke herritarren hurbilen dauden erakundeak izanik, alderdien iritzi

ofizialak ez dituztelako betetzen edo ez, baina egia da Sail horrek behin eta berriro egin duela topo tokiko erakundeekin bere egitasmoak gauzatzeko orduan. Frackinga izan zen adibide bat Aiaraldean eta Corrugados Azpeitia ere izan zen oso kasu entzutetsua bere garaian. Beste hitz batzuetan, Arantxa Tapiak ez ditu gogoko udalek jartzen dituzten trabak eta ondorioa begien bistakoa izan da.

Gasteizen Frackinga edota Corrugados Azpeitia egitasmoak aurrera eramateko orduan, Eusko Jaurlaritzak saihestu ezin izan zuen hesiekin egin zuen topo, udal Hiri Antolamendurako Plan Orokorrekin, alegia. Gasteizkoak ez zuen ahalbidetzen gasa ustiatzea bere lurral-

dean eta Azpeitian, aldiz, debekatu zegoen lantegiak egotea herrigunean.




Gauzak horrela, 2021eko abenduan onartu zuten Tapia Legea deiturikoa EAJk, PSE-EEK eta PPk. Arau horren arabera, Eusko Jaurlaritzak goi-mailako interes publikotzat jotzen dituen proiektuek ez dute zertan beteko HAPOak. Hasiera batean salbuespen neurritzat jo zutena ohiko prozedura gisa ezarriko dute Energia Berriztagarrien Sektore Planaren bitartez. Izan ere, Eusko Jaurlaritzaren asmoa da tokiko erakunde guztiak moldatzea agiri horrek adierazten duenera, partikularren desjabetzeak barne, enpresei emateko behar dituzten lursailak.

erreportajea


Zerotik mordora: energia berriztagarriak ekoizteko aurreikusitako azpiegitura industrialak

Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak energia berriztagarrien plana osatu du, esparru honetan lurralde antolamendua arautzeko asmoarekin. Guztira eskala handiko 20 proiektu fotovoltaiko eta eoliko aurreikusten ditu planak. Horrez gain, badira ere sektore planetik kanpo ere sustatzen ari diren bestelako proiektu energetikoak. Hurrengo mapan modu eskematikoan jaso ditugu datozen urteetan Aiaraldeko paisaia goitik behera eraldatu ditzaketen proiektu industrial desberdinak.

- Energia Berriztagarriarren Sektore Planetik kanpo dauden fotovoltaikoak
- Energia Berriztagarriarren Sektore planaren barruan dauden fotovoltaikoak
- ✦ EAEko erakundeak ez diren erakundeek kudeatzen dituzten proiektu eolikoak
- ✦ Energia Berriztagarrien Sektore Planetik kanpo Eusko Jaurlaritzak kudeatzen dituen proiektu eolikoak
- ✦ Energia Berriztagarrien Sektore planaren barruan dauden proiektu eolikoak
- ▲ Mendiak
- Herriak



erreportajea



herriz herri

Laudio

Abasto Plazaren birgaitzerako aurreko legealdian abiatutako kudeaketak ez du ahalbidetzen hura finantzatzeko aurreikusitako Europako Next Generation funtsak baliatzea. Halaber, proiektuarekin aurrera egiteko konpromisoa adierazi du Udal Gobernuak, funts propioak baliatuta.

Abasto Plazaren birgaitzea funts propioekin lizitatu eta prozesu parte-hartzailea abiatuko du Udalak



Prozesu parte-hartzailea abiatuko du Udalak, orain arte definituta dagoen proiektuari ekarpenak egiteko. [Aiaraldea.eus](https://aiaraldea.eus)

Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Europako Next Generation funtsen bidez finantzatu behar zen Laudioko Abasto Plazaren birgaitzea. Guztira, 1,4 milioi euroko dirulaguntza tramitatu zen aurreko legealdian proiektua bideratzeko, baina abiatutako proiektuaren kudeaketak ez zuen ahalbidetzen aurreikusitako dirulaguntza jasotzea. Horrela azaldu dute Laudioko Udal Gobernuak osatzen duten EH Bildu eta Omnia alderdiek Abasto Plazan bertan eskaintako agerraldian.

Hain zuzen ere Europako funtsa jasotzeko ezarritako epeek ez dute bideragarri egiten birgaitze proiektua horrela finantzatzea. Dirulaguntza deialdiaren arabera,

2024ko ekainerako lanen %60 gauzatu egon beharko lirake. Horretarako, ordea, proiektua aurtengo ekainean egon beharko luke lizitatu eta lanak abuztutik abiatuak. "Ekainean iritsi ginen Udal Gobernura eta egoera horrekin egin genuen topo", azaldu du Ainize Gastaka alkateak.

Udala alternatiba baten bila aritu dela azaldu du Gastakak: "oraingo legealdia hastean eta egoeraz jabetzean, lanak burutzeko epeak lutzatzea eskatu genuen, baina ez da baiezko erantzunik jaso". Gauzak horrela, diru-laguntza horri uko egitea beste aukerarik ez du izan tokiko gobernua. Aurreratutako dirua "ahalik eta lasterren" itzuliko dutela azaldu dute; "interesa handirik sor ez dadin"

Proiektuarekin aurrera

Abasto plazako obrarekin aurrera jarraitzeko konpromisoa azaldu du Udal Gobernuak: "Gobernu taldeak ezinbestekoa ikusten dugu Abasto Plazaren birgaitzeari ekitea. Ingurune honetako hiri-birsorkuntzari eta haren balioespenerari heltzeko konpromisoa agertu nahi dugu".

Agertoki berri honetan Abasto Plazako lanak funts propioekin burutuko ditu Udalak, eta, aldi berean, finantziario aukera eta laguntza berriak aztertuko dituzte.

Prozesu parte hartzailea

Urtea amaitu baino lehenago lizitatu nahi dute obra. Aurretik, bi hilabeteko epea jarri dio Udalak bere buruari proiektua hobetuko duen

“Gobernu taldeak ezinbestekoa ikusten dugu Abasto Plazaren birgaitzeari ekitea”

prozesu parte-hartzailea garatzeko. Diseinatuta dagoen proiektuaren gaineko ekarpenak bildu nahi ditu Udal Gobernu Taldeak. Horren adibide jarri dute, esaterako, orain arte definitutako proiektuak aurreratu ez dituen elementu historikoak mantentzea edota Abasto Plaza inguruko zuhaitzak ez kentzea.

Lehenik eta behin Abasto Plazako merkatariekin batzartuko da. Lehenengo sektoreko ekoizleei ere interpelazio zuzena egin diete, Abasto Plaza berriak beharrezko azpiegiturak aintzat hartuz gero, tokiko ekoizleen merkata bertara mugitzeko ideia planteatuz. Datozen asteetan herritar orok parte hartzeko bideak aztertuko ditu Udalak.

Laudio

Zinema Feminista eta Kulturartekoaren zikloa eskainiko dute Laudion

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Urriaren 16tik hasita eta azaroaren 27ra arte, Zinema Feminista eta Kulturartekoaren zikloa hartuko du Laudio. Wayra Elkarteak antolatuko du ekimena Emakunderen, Arabako Foru Aldundiaren eta Laudio Udalararen babesarekin; eta Laia Eskolako programazioaren barruan egongo da kokatua zikloa. Astelehenero "amatasunarekin, bikote-bizitzarekin eta erabakiak hartzearekin

eta bizi-independentziarekin" erlazionatutako filmak proiektatuko dituzte Lezaga Aretoan, 18:00etatik aurrera. Filmen ostean, gainera, solasaldirako tarte eskainiko dute ikusleekin batera.

Filmak

Hauek dira urriko astelehenetan ikusgai egongo diren filmak: *Un feliz acontecimiento* (urriak16), *El divorcio de Viviane Amsalem* (urriak23) eta *Todos queremos lo mejor para ella* (urriak 30).

Aiaraldea

Tubacexeko grebalarien aurkako epaiketa azaroaren 10era atzeratu da, baina batek akordioa lortu du



Akusatuetak batek lau hilabeteko espetxe zigorra eta isun ekonomikoa onartu du. **Hala Bedi**

Testua
Aitor Aspuru Saez

Urriaren 11n, 11:15ean Tubacexeko bi grebalarik epaiketa zuten Gasteizko Justizia Jauregian, baina bi ordu baino gehiago itxaron ostean, bertan behera geratu zen. Dena den, langileetako batek fiskaltzarekin eta akusazio partikularrekin akordioa lortu zuen eta lau hilabeteko espetxe zigorra —ez da kartzelan sartu behar, ez baititu aurrekaririk eta bi urte baino gutxiagoko zigorra da— zein isun ekonomikoak onartu zituen. Zehazki, 4.340 euro eta 490 euroko kalte ordainak jasoko dituzte bi ertzainek eta 30 eguneko 5 euroko zigorra ere

izango du. Nabarmendu beharra dago auziperatu horren kontrako bi akusazio zeudela, hamalau hilabeteko espetxe zigorrekoa fiskaltzaren aldetik eta hiru urte eta hamar hilabetekoa akusazio partikularren aldetik. Atentatua eta lesio delituak leporatzen zizkieten.

Epaiketa bertan behera

Beste grebalaria, ordea, azaroaren 10ean itzuli beharko da Gasteizko epaitegira hamalau hilabeteko kartzela zigorrari aurre egiteko. Bere kasuan, fiskalak argudiatu zuen ezinbesteko bi lekuko —alegia, langilea atxilotu zuten bi ertzainak— ez zituztela deitu "akats" baten ondorioz.

Auzipetuaren abokatuak, ordea, oso haserre erantzun zion eskaerari, bere ustez, ez baita akatsik egon, baizik eta fiskalak ez duela bere lana ondo egin: "Ez dago agenteen zenbakietan transkripzio okerrrik. Gertatu dena da ez dituztela deitu. Duela urtebete baino gehiago hasi zen prozesua eta denbora egon da soberan epaiketa prestatzeko".

Edonola ere, epaileak onartu zuen fiskalaren eskaera eta bertan behera utzi zuen epaiketa. Aipatu beharra dago hau Tubacexeko grebari lotutako bigarren epaiketa atzeratua izango dela. Izan ere, hiru gazte kirailaren 18an zuten bertan behera geratu zen huts egite administratibo baten ondorioz.

Urduña



MARIA LUSIA GOIKOETXEA

URDUÑAKO BIZILAGUNA

Borrokak aurrera darrai

Bizitza osoa ezinduekin lanean, eta haietako bat bihurtu arte, ez dut buruan izan zeri egin behar zioten aurre. Eta ez da izango enpatia faltagatik... inoiz, txantxetan esan dut nire pazienteekin hain enpatia handia izan nuela, ezen haietako bat bihurtu nintzela.

Baina niri gertatu behar izan zitzaidan ohartzeko trenea egokitu gabe zegoela, kalera irtetea askotan arriskutsua dela (zintarriak, eskailerak, arrapala arriskutsuak...), oporretara joatea abentura bihur daitekeela ezinduentzako logela duen hotel bat bilatu arren, eta albo batera utziko dugu hondartzara joatearena...

Orain bai, politikariek IRISGARRITASUN UNIBERTSALArekin betetzen dute ahoa eta legeak egin eta egin da biltza. Desgaitasunak ez du lege berririk behar. Dauden legeak betetzea behar du, bereziki eta paradoxikoki, estatuaren menpekoak diren enpresa publikoen partetik.

Etsigarria Renferekin izandako azken bilera. Oso inoza izango naiz agian, baina gehiago espero nuen, egia esan. Madrildik politikari bat etorri zen, eta zezena toreatzera mugatu zen, ministroak Senatuan egin bezala; eta konpromiso bat bera ere ez mahai gainean.

Borrokak aurrera darrai...

YANDIOLA
HORTZ KLINIKA LAUDIO

Mediku zentroa RPS: 314/18
Karmen Kalea 13, behe
LAUDIO (Araba)
946 72 31 00
www.yandioladental.com

75 urte zurekin



PADI PROGRAMA



INPLANTEAK



3D ERRADIOGRAFIK

herriz herri

Amurrio

Bost urtez luzatu den prozesu judizialak amaierara jo du, eta orain bi gazteek lau urteko espetxe zigorrari egin beharko diote aurre. Ertzaintzak iragan irailaren 30ean atxilotu zituen bi gazteak, Gasteizko gobernu militarrean agertu ostean.

Galder Barbado eta Aitor Zelaia Zaballako espetxean sartu dituzte



Irailaren 30ean atxilotu zituen Ertzaintzak galder Barbado eta Aitor Zelaia gazte independentistak. FOKU

Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Bost urtez luzatu den Galder Barbado amurriarra eta Aitor Zelaia gasteiztarraren aurkako prozesu judiziala, beste fase batean sartu da honezkerok. Ertzaintzak iragan irailaren 30ean atxilotu zituen eta jarraian Zaballako espetxean kartelaratuzituzten, ANkerkeria Stop! plataformak jakinarazi zuenez.

Auzitegi Gorenak lau urteko espetxe zigorra berretsi ostean, eta kartelan boluntarioki sartzeko epea agortuta, bi gazte independentistak Arabako hiriburuan dagoen Espainiako Gobernu Militarreko eraikinean agertuziren, bien kontrako espetxeratze agindua indarrean zegoela.

Hain zuzen ere, lau urteko espetxe zigorra ezarri zien Auzitegi Nazionalak biei, "material lehergariak helburu terroristekin gorde-

tzea" egotzita. Helegitea jarri zuten orduan, eta maiatzean iritsiz encondenen berrespena Espainiako Auzitegi Gorenen eskutik. Ikasturte hasierarekin batera iritsi da espetxeratze agindua, eta hori salatzeko mobilizazio ziklo berria egon da azken asteetan. Dozenaka manifestazio, elkarretaratze eta ekimen egin dira Euskal Herri osoan. Aiaraldean Amurrio, Audio, Orozko zein Urduñan egin dira mobilizazioak.

Atxilotuak eta espetxeratuak

Galder Barbado Bonilla eta Aitor Zelaia 2019ko otsailaren 7an atxilotu zituen Ertzaintzak, lehergailuen gordailu batekin lotutako operazioan. Bi gazte arabarrek sei hilabete igaro zuten behin-behineko espetxealdian; Madrilgo Soto del Realen aurrena, eta Zaragozako Daroca espetxean gerora, Amurriotik 367 kilometrotara. 2019ko abuztuaren baldintzapean aske geratuziren Entzu-

tegi Nazionalean egitekoa zen epaiketaren zain.

Epaiketa Madrilan

COVID-19aren pandemiak atzeratu egin zuen bi gazteen aurkako epaiketa, eta ez zen 2021eko urtarilerara arte burutu. Bien bitartean, Barbado eta Zelaia egunerokoa baldintzatuta egon da: astero epaitegian aurkeztu beharra, Espainiako Estatutik ateratzeko debekua eta jarraipen polizial zorrotza ezarri zaizkie.

2021eko urtarrilaren 21 eta 22an egin zen epaiketa Madrilgo Entzutegi Nazionalean. Jose Perals fiskalak (Altsasuko gazteen kasuko berdina) 8 urteko espetxe zigorra eta 7 urteko baldintzapeko askatasuna eskatu zuen bi gazteentzat, material lehergarria helburu terroristekin gordetzea egotzita. Angela Murrillo izan zen epailea, Bateragune kasua eraman zuen epaile berdina.

Helegitea

Defentsak eta akusazioak helegite bana aurkeztu zuten Espainiako Auzitegi Gorenean. Defentsak bi gazteen absuluzioa eskatu zuen, epaiketakira unbitartean akusazioak Dura herrian aurkitutako bidoia bi gazteekin erlazionatzerik izan ez zuela ulertuta. Akusazioak, bere aldetik, 8 urteko espetxe zigorra ezartzearen alde egin zuen.

Aurrera egiteko deia

Elkartasun olatu erraldoia altxatu du Barbado eta Zelaia kasuak. Ehunka izan dira urte hauetan egin diren mobilizazio eta ekimenak.

ANkerkeriari Stop! plataformak azken manifestazio jendetsua egin zuen irailaren 30ean bertan. Milaka lagunek, bi gazteen espetxeratzea salatu, eta "Euskal Herriari bere askatasunaren alde aurrera egiten jarraitzeko" deia zabaldu zuten Gasteizko kaleetan zehar.



GALDER BARBADO BONILLA
ELKARRIZKETA

“Oso argi daukat nire militantziarekin jarraituko dudala”



Amurrio

Epaitegiaren alboan eraiki nahi duten aparkalekuaren kontrako sinadura bilketa abiatu dute



Hirigune berdea egitea exijitu du taldeak. Aiaraldea.eus

Testua
Aitor Aspuru Saez

Aiaracomposttaldeak sinadura bilketa bultzatu du Internet bidez zein Mariterra dendan eta Abizabal tabernan. Epaitegiaren alboan eraiki nahi duten aparkalekuaren kontra agertu da taldea, eta aldarrikatu du horren ordez, lursail horiek parke bat egitea bideratzea.

Berez, Amurrioko Udalak 52.872,28 euroren truke 1898,84 metro karratuko partzela erozion Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailari 55 ibilgailurako aparkalekua sortzeko.

Taldearen aburuz, "aparkaleku hori eraikitzeak gure herriaren erdigunean dagoen berdegune bizi

Aiaracompost taldeak sustatu du ekimena eta ibilgailuentzako azpiegituraren ordez parke bat egitea proposatu du

bat kentzea ekarriko du. Inguru horretan lehendik dagoen trafikoa larriagotuko du eta aparkalekura sartzeak autoak bidegorriaren eta oinezkoentzako espaloien gainetik pasatzea ahalbidetuko du".

Aiaracompostek aldarrikatu du mugikortasun jasangarria sustatzeko bidea ez dela autoen erabilera erraztea, baizik eta bizikletarena. Horretarako bidegorriak zein txirringuruetako aparkaleku estaliak beharrezkoak direla erantsi dute. Gauzak horrela, bestelako azpiegitura exijitu dute epaitegien parean: "Hiringuruneko parkeak oso garrantzitsuak dira klima-aldaketaren ondorioei aurre egiteko, hiri-bioaniztasunari eusteko eta bizilagunen gozamenarako".

Udalak Amurrioko euskaldunak identifikatu eta saretzeko egitasmoa jarri du abian



Euskaldunak identifikatu eta saretzea da dinamikaren helburua. Aiaraldea.eus

Testua
Aitor Aspuru Saez

Eman aurpegia euskararen alde! kanpaina aurkeztu dute gaur eguerdian Amurrioko udal txean. Udalerriko euskaldunak identifikatu eta elkarren arteko komunikazioa erraztea du helburu egitasmoak. Herriaren euskalduntze-prozesuan eragin nahi dute tokiko erakundetik. Izan ere, amurriotarren %50a euskaldunak badira ere, hizkuntzaren erabilera %5ekoa da.

Amurrioko euskaldun komunitateari luzatu diote Euskararen Eguna ospatzeko baliatuko

den mosaiko erraldoi baterako argazkiak bidaltzeko gonbita. Gerora etxe guztietako postontzietan banatuko dute mosaikoa.

Adinez nagusi diren herritarrek azaroaren 17ra arte izango dute argazkia bidaltzeko epea. Irudi-baimena funtsezkoa izango da, eta horretarako Amurrio.eus atarian egongo da galdetegia eskuragarri, bihurtik aurrera.

Posta elektronikoz edota Whatsapp bidez ere jasoko dituzte irudi eta baimenak; irabazieuskararekin@gmail.com helbidetan eta 662 303 756 telefonoan, hurrenez hurren.

Betaurreko eta lentillarik gabe ondo ikusi nahi al duzu?

Gure adituei galdetu!

ORTO-K
ORTOQUERATOLOGIA

LUYANO OPTICOS

Conóptica
Juntos por una visión mejor



Doako etxez etxeko zerbitzua
0km produktuak · Garaiko fruitak eta barazkiak
Egunero Iza okindegiko ogia
Pertsonalizatutako fruten eta barazkien saskiak

945 092 550 · Landako kalea 1, Amurrio · @frutadenda_selene

Desjabetzea da soluzioa?



53 orduko itxialdia egin zuten Autoglas-Glavistako langileek iragan astean fabrikaren barruan. **Aimar Gutierrez Bidarte**

¡Expropiación es la solución! (Desjabetzea da konponbidea!) aldarria nagusitu da Autoglas-Glavistako langileen artean. Baina, zer dago lema horren atzean? Halakorik egitea eskatu ahal zaio, legea eskutan, administrazio publikoari? Aiaraldea Komunikabideak bi aholkulari juridikorekin hitz egin du gaiaren inguruan.



Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Guardian errudun, Glavista konponbidea! izan da Autoglas-Glavistako langileen lema nagusia azken hilabeteetan. Baina iragan ostira-lean fabrika barruan eginiko itxialditik atera eta manifestazioa abiatu zutenean, beste oihu bat ere nagusitu zen beharginen artean: *¡Expropiación es la solución!* (Desjabetzea da soluzioa!).

Baina, zer dago aldarri berri horren atzean? Posiblea da legalki Autoglas-Glavistaren etorkizuna bermatu ahaliko luketen lurak desjabetzea, Guardian multinazionalari? Soluzio egokia izan ahaliko litzateke?

Gai horri buruz hitz egiteko bi aditurengana jo dugu: Iñaki San Andres Marcilla eta Urtzi Gorostiaga Mendizabal. Biak dira aholkulari juridikoak, ELA eta LAB sindikatuetan, hurrenez hurren.

Bilbokoa izan arren, San Andresek gertutik ezagutzen du eskualdeko egoera, Tubacexeko Enplegua Erregulatzeko Espedientearen aurkako borroka juridikoan murgilduta egon baitzen 2021ean. Bere hitzetan, “borondate politikoa” da administrazio publikoetatik behar dena. “Hori lotuta, kontuan hartu behar dugu Guardianek uko egin diola Autoglas-Glavistaren balizko erosleari lurrrak saltzeari, lur horietan etorkizunean beste inolako proiekturik garatuko ez duen arren”, azaldu du aholkulariak.

Bere ustez, Europako legeriak hainbat gauza egiteko aukera ematen dio Eusko Jaurlaritzari horrelako kasuetan: “Europako legediak uzten die administrazio publikoei degradatuak dauden tokietan eskua sartzeko. Langabezi-tasa da zonalde baten degradazioa markatzen duen parametroetako bat. Egun,

%14ko langabezi tasa dago Aiaraldean, eta hori asko da Europako ikuspuntutik. Autoglas-Glavistaren kasuan, enpresa mantenduko balitz lanpostuak mantenduko lirateke eta, horrez gain, baita bere inguruko industria ere. Kontuan hartu behar dugu Autoglas-Glavistarentzat ez dutela soilik bertako beharginek lan egiten, baita inguruko azpikontratek ere, eta inguruko mertakariei ere ematen die lana. Hori ikusita, uste dugu Eusko Jaurlaritzak eskua sartu dezakeela. Europako legeriak aukera ematen die administrazio publikoei horrelako egoeretan enpresak bere gain hartzeko”.

2,5 milioiko zorra

Puntu honetan, ELAko ki-deak nabarmendu du Autoglas-Glavistak 2,5 milioi euro zor dizkiola Eusko Jaurlaritzari. Erakunde publikoak hiru laguntzaren bidez eman zion diru hori enpresari, Parter

“Autoglas-Glavistak 2,5 milioi euro zor dizkio Eusko Jaurlaritzari, eta honek diru hori baliatu ahaliko luke enpresako akziodun bilakatu eta, modu horretan, egoeran eskua sartzeko”

Capital inbertsio funtsaren menpe egon zen garaian. Diru-laguntzen oinarriak bete ez dituenek, diru hori administrazioari itzuli beharko lioke une honetan likidazio prozesuan dagoen enpresak. Eta hori abagune bat da, San Andresen ustez: “Eusko Jaurlaritzak aukera izango luke 2,5 milioi euro horiek akzio bilakatu eta, modu horretan, enpresaren jabeetako bat bilakatzeko”.

Izan ere, San Andresen ustez, Eusko Jaurlaritzak ezin luke Guardianen lurra desjabetu gero beste enpresa bati emateko, “lehia desleialean sartuko litzatekeelako”. Baina akzioduna bihurtuko balitz gauzak aldatuko lirateke, “interes publikoa” argudiatu ahaliko lukeelako Guardianen lurren desjabetzea burutzeko. “Abiadura Handiko Trena garatzeko edo edozein errepide egiteko, adibidez, hainbat eta hainbat desjabetze egin dira, interes publikoa argu-

erreportajea

diatuta, eta kasu honetan ere interes publikoa egongo litzateke”, azaldu du aholkulari juridikoak.

Desjabetzeagatik Guardiani kalte ordaina eman behar litzaioke. Baina, San Andresen ustez, kalte ordain horrek ez luke zertan administrazio publikoaren esku geratu, “sortzen den sozietate edo proiektu enpresarial berriak” ordaindu ahalko lukeelako.

Guardianen ardura

Urtzi Gorostiaga Mendizabalek ere bat egiten du *Desjabetzea da soluzioa* lemarekin. “Desjabetzea aldarri indartsua da, jabetza pribatuaren funtzio sozialaren inguruko posizio politiko bat adierazten duena”, azaldu du LABeko aholkulariak, “Zer dago lema horren atzean? Guk ulertzen dugula jabetza pribatua bere horretan ez dela sakratua eta bere gaitetik legokeen eskubideak daudela, jabetzaren funtzio sozia-

“Abiadura Handiko Trena garatzeko edo edozein errepide egiteko, adibidez, hainbat eta hainbat desjabetze egin dira, interes publikoa argudiatuta”

lari lotuak daudenak”. Dena den, Gorostiagak ‘desjabetze’ terminoaren bi ulerkera bereizten ditu, “ulerkera politikoa” (arestian aipatutakoa) eta “ulerkera juridikoa”. Eta aldarri politikoarekin bat egiten duen arren, zalantzak sortzen zaizkio desjabetzearen planteamendua gaur egungo egoera juridikora eramaterako orduan.

Alde batetik, uste du lege aldetik zaila izan daitekeela Autoglas-Glavistaren jarduna interes publikokoa dela argudiatzea, autoentzako haizetakoak egiten dituen lan-tegi bat delako, eta ez berez funtsezko zerbitzu publiko bat eskaintzen duen enpresa bat. “Laudion araztegi bat jartzeko leku bat behar balitz, adibidez, erakunde publikoek legea baliatu ahalko lukete horretarako lur bat desjabetzeko. Baina administrazio publikoak ezin dio lehentasuna eman jarduera industrial bati beste jardue-

ra batzuen gainean”. Horri lotuta, Gorostiagak zailikusten du probatzea Autoglas-Glavistaren jarduera ekonomiko ezin daitekeela beste tokiren batean egin. “Errepide bat egiteko lur bat desjabetzen denean, adibidez, txosten tekniko bat dago argudiatzen duena errepide hori lur horretatik bai ala bai igaro behar dela”.

Gauzak hala, aholkulari juridikoak uste du fokua Guardianek duen erantzukizunean jarri behar litzatekeela. “Multinazional horrek une batean erabaki zuen ez zuelako autoentzako haizetakoak ekoizten jarraitu nahi; eta, Autoglas-Glavistako langileakkaleratzearen erantzukizuna bere gain hartu ordez, Parter Capital funts putreari saldu zion enpresa”.

Horretarako, Gorostiagaren aburuz, Guardianek hainbat enpresa pantaila baliatu zituen Parter Capitalekin salerosketa egiteko, eta gerta-

tutakoa nahikoa izan daiteke multinazionalari “iruzurra” leporatzeko. Hor ikusten du Gorostiagak abagunea. “Eusko Jaurlaritzak presio handia egin ahal dio Guardiani aferra horrekin, eta baita beste gauza batzuekin ere: ematen dizkion diru-laguntzak, egin ahal izan dituen bestelako lege-urraketak...”.

Borondate politikoa

Modu batean edo bestean, bi aholkulariak ados daude funtsezko gauza batean: erakunde publikoek (eta, zehazki, Eusko Jaurlaritzak), legea euren alde izanda, orain arte egin dutena baino nabarmen gehiago egin dezaketela Autoglas-Glavistako 240 langileen etorkizuna bermatzeko.

Gakoa "borondate politikoan" dagoela errepikatu du San Andresek: “Askotan aitzakia legerian jartzen da, eta hori ezin da inoiz aitzakia bat izan. Borondate politikoa badago, gauzak egin daitezke”.



Autoglas-Glavistako langileek itxialdia egin zuten iragan astean fabrikaren barruan. Aimar Gutierrez Bidarte



Guardianen lantegia -ezkerrean-, Autoglas-Glavista -atzean- eta Guardianen jabetza den lursaila -erdian-. **Ruben Ladron de Gebara**

Zenbat jabetza ditu Guardianek eta zergatik ez ditu saldu nahi?

Galdera bat nagusitu da udatik hona Autoglas-Glavistaren itxieraren aferan: Zergatik ez ditu Guardian multinazionalak autoentzako haizetako fabrikaren etorkizuna bermatuko luketen lurrak saldu nahi? Galderak ez du erantzun argirik, baina badago mamia atzean, Villosaren garaietarako atzera eginez gero.



Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Guardianek Laudion dituen lursailak funtsezko elementua bilakatu dira Autoglas-Glavista enpresaren gatazkan. Laburbilduz: ekainean bazurdiaren Autoglas-Glavistak etorkizuna zuela, bazuelako balizko erosle bat, 240 langileak bere gain hartzeko prest zegoena. Baina dena okertu zen hurrengo hilabetean, Guardianek azken unean uko egin ziolako erosleak nahi zituen lurrak saltzeari, sindikatuek behin baino gehiagotan salatu dutenez. Kontuan hartu behar da Guardianenak izaten jarraitzen dutela Autoglas-Glavista lantegiaren lurrak, eta baita inguruko lursailak ere.

Gauzak hala, uztailetik hona galdera bat nagusitu da Autoglas-Glavistako langileen artean: Zergatik ez ditu Guardianek bere lurrak saldu nahi? Galdera konplexua da eta, momentuz, hipotesi ugari dauden

arren, ez dago erantzun argirik.

Mota askotako jabetzak

Beste galdera bat ere planteatu daiteke, erantzuteko errazagoa: zenbat jabetza ditu Guardianek Laudion eta zer motatakoak dira?

Ezer baino lehen, kontuan hartu behar da Guardianek enpresa eta izendapen sare handia duela atzetik: Guardian Española SA, Guardian Glass España, Central Vidriera SL, Guardian Europe... Baina enpresa nagusi bat dago Laudionko fabrikaren eta azpiegituren atzean: Guardian Llodio Uno SL. Sozietate horren izenean daude erregistratuta multinazionalak Laudion dituen jabetza guztiak, edo nagusienak behintzat, eta enpresa hori izan zen Autoglas-Glavistaren lantegia (azpiegitura, ez lurrak) Parter Capital inbertsio funtsari saldu zizkionak 2020. urtean.

Hainbat kontsulta egin os-

tean, Aiaraldea Komunikabideak ondorioztatu du multinazionalak 46 jabetza dituela gutxienez erregistratuta Aiaraldean, denak Laudion. Fabrikaren azpiegituz gain, beste hainbat motatako ondasunak ere ditu: lokalak, fabrikaren inguruko zelai eta mendi ugari, multinazionalako goi-kargudunentzat eraikitako etxebizitza multzoa... guztira, 30 hektarea baino gehiago hartzen duten enpresak Laudion dituen jabetza guztiak.

Ia mende bat atzera

Dena den, multinazionalak gaur egun lur asko dituen arren, askoz gehiago izan zuten antzina. Ia mende bat egingo dugu atzera, 1934ra. Urte horretan inauguratu zen Vidrieras de Llodio SA (Villosa) enpresa, Isidoro Delclaux Arostegiren eskutik.

Villosa hazten joan zen hurrengo hamarkadetan. Ordu arte izan zuen azalera bi koiztu zuen hurrengo hamar

Mendiak, zelaiak, etxebizitzak, lonjak... mota askotako jabetzak ditu Guardianek gaur egun Laudion, baina antzina gehiago izan zituen, Villosa gisa ezagutzen zenean

urteetan, trenbidearen beste aldera salto eginez eta Altzarrateko zonaldea hartuz; eta 1.500 langile izatera iritsi zen 1970. hamarkadan. Garai berean, 1965. urtean, Delclaux sendiak Vidrala sortu zuen, botilak ekoizteko helburuarekin. Gaur egun, Delclaux sendia 91. postuan dago Espainiako Estatuko pertsona eta familia aberatsenen zerrendan.

Beira laua ekoizten zuen Villosak, baina enpresaren jarduna ez zen horretara mugatu. Frankismo garaia zen, eta enpresari handien artean "paternalismo industrial" gisa ezagutzen dena nagusitu zen.

Enpresak ez ziren langileak enplegatzen mugatzen, beharginen bizitzako beste hainbat esparrutan ere zuten presentzia. Villosak Laudion hainbat lursail eskuratu zituen langileentzako auzuneak eraikitzeko: Lateorndon ('Grupo Jesus Guri-di' izenarekin), Larrañon eta El Manzanalen (Ugarten), bes-

teak beste. Horrez gain, beste-lako ekimen batzuk ere jarri zituen martxan, gaur egun ikuspegitik apur bat martzianoak diruditenak: ekonomatua, CD Villosa futbol taldea (egungo CD Laudioen aitzindaria izan zena), haurrentzako Gabonetako marrazkilehiaketa... Laudioko bizitza ekonomiko, sozial zein politikoan pisu handia zuen Villosak, eta jabetza sare handia zuen horretarako.

Honi lotuta, nabarmentzekoa da Laudio Ikastolaren ibilbidea beira fabrikak Jose Arrue kalean zuen txalet batean hasi zela, eta egun hezkuntza zentroaren kokalekua den mendia ere zela Villosarena. Hain zuzen, mendi horren magaleko zenbait lursailak Guardian Llodio Uno SL-erak dira gaur egun.

Beste garai batzuk ziren, baina egoerak ez zuen horrela betirako iraungo. Guardian multinazional estatu batuarak erosi zuen Villosa 1986an, bere akzioen %52a eskuratu. Ondoren, Koch Industries talde erraldoiak eskuratu zuen Guardian 2012 eta 2017 urteen artean, eta horrela iritsi gara gaur egungo egoerara.

Zergatik ez saldu?

1986tik hona, jabetzak murrizten joan da Guardian Lau-

Villosak “paternalismo industrial” gisa ezagutzen dena aplikatu zuen frankismo garaian, bere langileak bizitzeko auzune osoak eraikiz edota ekonomatu bat martxan jarritz, besteak beste. Baina azpiegitura eta jabetza horietako gehienak jada ez dira Gardinenak

dion. Jada ez dira bereak ekonomatuaren kokalekua, Ikastola zegoen txaleta edota langileentzat eraikitako auzuneak. Puntu honetan, hasierarako galderak are indar handiago hartzen du: Orduan, zergatik egin dio uko Autoglas-Glavistaren lurak saltzeari?

Bi hipotesi nagusi egon daitezke. Lehen hipotesiaren arabera, Guardianek interesa izan dezake lur horietan bestelako proiektu batzuk garatzeko. Hori planteatu du komunikabideren batek, iturri anoni- moak aipatuta, iradokiz Guardianen lurak oso baliotsuak direla eta bestelako proiektu batzuk garatzeko baliatu daitezkeela.

Berez, Guardianek erakutsi du bere lursail batzuetan beste egitasmo batzuk garatzeko interesa. Goikoetxe baserriaren kasua da horren adibide. Aretako bide zaharretan dagoen baserri hori Guardian Llodio Uno SLrena da, eta Eusko Jaurlaritzak kultura ondare izendatu zuen.

Multinazionalak alegazioak aurkeztu zituen orduan, argudiatuta lur eremu horretan 345 etxebizitza eraiki zitezkeela, Hiri Antolamendurako Plan Orokorra berrikusita. “Horretaz gainera, bide berri bat aurreikusten da trenbidearen on-

doan, eta planeatuta dago ibai ondoko oraingo bidea bihurtzea oinezkoen lehentasuneko kale edo ibai-pasealeku”, argudiatu zuen enpresak Eusko Jaurlaritzaren aurrean, baina honek ez zituen alegazioak aintzat hartu.

Hala ere, hori 2009an gertatu zen, Guardian oraindik Koch Industriesen menpe ez zegoenean. Denbora igaro da ordutik hona, eta multinazionala beira ekoiztera mugatu da urte hauetan guztietan bere lursailetan.

Gauzak hala, beste hipotesi bat izan daiteke Guardianek badituela beste lehentasun batzuk, eta ez duela autoentzako haizetakoak ekoizten dituen fabrika bat lagundu nahi, bere interesen aurkakoa delako. Kontuan hartu behar da Guardianen jabeak (Koch Industries talde erraldoia) sektore askotan jarduten duela, eta interesak elkarren artean txirikordatzen direla.

Modu batean edo bestean, argi dagoena zera da: Laudio-ko 30 hektarea baino gehiago Estatu Batuetako talde erraldoi baten menpe egoteak baduela prezio bat eta, gauzak asko aldatzen ez badira, prezio hori Aiaraldeko 240 langilek ordaintzen amaituko dutela.

46 jabetza ditu Guardian Llodio Uno SL enpresak

30 hektarea baino gehiagoko zabalera dute Guardian Llodio Uno SL enpresak Laudion dituen jabetzek

3 auzune eraiki zituen Villosak bere langileentzat Lateorrondon (“Grupo Jesus Guridi” izenarekin), Larrañon eta El Manzanalen (Ugarten)



Ezkerrean, Guardian eta Autoglas eta eskuman Vidrala, airetik ikusita. **Ruben Ladron de Gebara**



Ibilian zein futbolean bat egingo dute *Buru Osasunaren alde*

Hainbat jarduera egingo ditu Asasam elkarteak urriaren 10ean ospatzen den Buru Osasunaren Nazioarteko Egunaren testuinguruan. Asasameko kideek buru osasuna giza eskubide unibertsala dela azpimarratunahi dute aurtengo hitzorduan urriaren 17an jokatu den areto futbol partida izango da lehenengo zita. La Milagrosa ikastetxeko ikasleek eta Asasameko kideek La Granja kiroldegian jokatu dute lagunarteko partida 11:45ean, honezke-ko urteroko hitzordua bilakatu da. Sarrera doa-

koa izango da, eta Asasameko kideek herritar orori luzatu dio bertratzeko deia.

IV. Ibilaldia

Dena den, Buru Osasunaren Aldeko Martxa Soziala izango da ekimenaren IV. edizioa. 2019an martxa lehendabiziko aldiz antolatu zutenetik, urte urte arrakasta handiagoa izan du hitzorduak, eta pandemiak ere ez zuen ospakizuna eten. Urtero bezala, aurten ere, Amu-

rrioko Juan Urrutiatik eta Laudioko Herriko plantzatik abiatuko dira zutabeak 10:00etan, Luiaondon bat egiteko. Guztira, 6,5 kilometroko ibilbidea izango da, Nerbioiko parke Lineala zeharkatuz. Izen emateak 3 euroko kostua izango du, eta egunean bertan egin ahal da Laudioko eta Amurrioko irteera puntuetan. Azaldu dutenez parte hartze orok jasoko du saria. Azkenik, Maria Belen Andres psikologoak hitzaldia eskainiko du urriaren 25ean Laudioko Kultur Etxeko Arraño gelan, 18:00etan.

MUSIKA

10.20 Ostirala

22:00 AMURRIO
LIHER
Burbio Kultur Elkarte

10.21 Larumbata

19:00 Urduña
ZUMBA, PLACTON ETA
FEOS PERO MAJOS
Urrifes; Urduñako herri
Eskolaren aldeko jaialdia,
Guras Elkarteak antolatuta
Eskolako patioa

KIROL JARDUERAK

10.13 Ostirala

16:00 LAUDIO
KARATEKO JUNIOR-21
URTEZ AZPIKO LIGA
NAZIONALA
Granja kiroldegia

10.14 Larumbata

08:30 LAUDIO
KARATEKO JUNIOR-21
URTEZ AZPIKO LIGA
NAZIONALA
Granja kiroldegia

10.15 Igandea

08:30 LAUDIO
KARATEKO JUNIOR-21
URTEZ AZPIKO LIGA
NAZIONALA
Granja kiroldegia

10.17 Asteartea

11:45 AMURRIO
LA MILAGROSA-ASASAM
Elkarbizitza partida Buru
Osasunaren Nazioarteko
Egunaren testuinguruan
Granja kiroldegia

10.20 Ostirala

17:00 LAUDIO
PING PONG TXAPELKETA
Lamuza parkea

10.20 Ostirala

19:00 URDUÑA
BOULDERRAREN
AURKEZPENA
Urduña Mendi Fest
Alondegia

10.22 Igandea

18:00 Amurrio
BETERANOEN PARTIDA:
AMURRIO CLUB-ATHLETIC
CLUB
Amurrio Clubeko 75.
urteurrenaren barruko
jarduera
Basarte futbol zelaia

10.18 Asteazkena

13:30 AIARA
'ESKOLAN, KALEAN ETA
ETXEAN EUSKARA LAGUN'
Etxaurren ikastolako
gurusoentzat
Etxaurren ikastola

10.18 Asteazkena

18:00 AMURRIO
JARABEAK ETA POMADAK
NEGURAKO
Guillermina Garciaeren eskutik
Larrinbeko zentro soziala

10.19 Osteguna

17:30 AMURRIO
HEZKUNTZA EMOZIONALA
Laura Medelen eskutik
Liburutegia

10.19 Osteguna

18:00 OROZKO
AUTOEZAGUTZA
ETA AHALDUNTZEA
ARGAZKIGINTZAREN BIDEZ
LAIA Eskolag antolatutako
ekimena
Gaztetxokoa

10.19 Osteguna

18:00 LAUDIO
ARTILEZKO SOLASALDIK
Kafe-solasaldia
Lezeaga Aretoa

10.20 Ostirala

18:30 AMURRIO
HIRIGINTZA FEMINISTA
LAIA Eskolaren eskutik
Katekesi aretoa

10.21 Larumbata

10:00 AIARA
BRIKOLAJERAK
LAIA Eskolako tailerra
konponketa txikiak egiteko
Emakumeen gela

FAMILIA JARDUERAK

10.19 Osteguna

18:00 LAUDIO
TIPPI-TAPA
Ana Apika ipuin kontalaria
Udal liburutegia

10.22 Igandea

17:00 AIARA
IGANDE ARRATSALDEAK
FAMILIAN
Haurrentzako ikuskizuna
Aiarako udalategia

10.22 Igandea

17:30 LAUDIO
"SUGAARREK LAGUNTZA
BEHAR DU"
Haurrentzako jarduera
Faktoria

Urrifest jaia

ospatuko dute
Urduñan



Urduñako Herri Eskolako Guraso Elkarteak urteroko hitzorduari eutsi dio aurtengoan ere; Urrifest ajaialdia antolatuko dute datorren urriaren 21ean. Ekimenak Guraso Elkartearentzako dirua biltzea du xede. Arratsaldeko 19:00etan abiatuko dituzte ekintzak, eskolako patioan. Izaskun del Cerro urduñarrak zumba saioa gidatuko du. Placton eta Feos Pero Majos taldeek alaituko dute iluzitea.

Euskararen Egumak

ekintzaz beteko ditu Aiarako
herriak, hizkuntzaren alde



Ekintzaz beteriko egunak datoz Aiarara. Aiarako udalak eta Hogeitalau Euskara Elkarteak Aiarako Euskararen Egumak antolatatu dituzte, urriaren 18tik urriaren 25era. Euskaltzaleen Topaguneak abian jarritako *Haurren aurtean helduok heldu* kanpainaren barruan sartuko dituzte jarduerak. Hori dela eta, Etxaurren Ikastolako gurasoei zuzendutako hitzaldi batekin abiatuko dute egitaraua urriaren 18an; familiak "euskara lagun" izan dezaten "eskolan, kalean eta etxean". Urria-

ren 20an Arabako bertsolari Txapelketako kanporaketa saio bat ospatuko dute Izorriako txokoan.

Urriaren 21ean, aldiz, babarrunjana egingo dute Zuhatzako txokoan. Bazkalostean hitzaldia eta ginkanaren sari banaketa egingo dituzte. Asteburua ixteko, haurrentzako jarduerak antolatu dituzte igandean Arespaldiztako udalarexan, 17:00etatik aurrera. Azkenik, beste hitzaldi bat eskainiko dute Ikastolan urriaren 25ean.

10.13 Ostirala
19:30 AMURRIO
TOR MAGOA
Arabako Magialdiaren barruan
Amurrio Antzokia

10.14 Larumbata
20:00 AMURRIO
"ARIMA"

Berriketan dantza eta musika ikuskizuna
Amurrio Antzokia

10.17 Astearte
19:00 AMURRIO
"TEMPLOS, TORRES Y CAMINOS"
Mikaela Portillaren dokumentala
Amurrio Antzokia

10.20 Ostirala
18:00 AMURRIO
"LA ODISEA DE LOS GILES"
Filma eta zineforuma Luis Vilen eskutik
Amurrio Antzokia

10.21 Larumbata
20:00 AMURRIO
BRUJAS DE SALEM
Intxartu taldearen eskutik
Amurrio Antzokia

HITZALDIK
ETA
IKASTAROAK

10.15 Igandea
09:30 URDUÑA
HEGAZTI BEHAKETA
Udazken gastronomikoa
Izen emateko: 945 38 43 84
Alondegia

10.16 Astelehena
16:00 ARTZINIIEGA
IKASTAROA: "LOR EZAZU MEREZI DUZUN LANA"
Izena emateko: 645968870
Udaletxea

10.16 Astelehena
17:30 LAUDIO
"BA AL DAKIZU ZER DEN TDHA?"
AHIDA elkarteak antolaturiko hitzaldia
Kultur Etxea

10.17 Astearte
17:30 URDUÑA
"NOLA EGIN MOTIBAZIOA HAZKUNTZARAKO TRESNARIK ONENA?"
Diziplina positiborako hitzaldia
Alondegia

10.18 Asteazkena
09:00 AIARA
ORDIZIA, IDIAZABAL ETA TOLOSARA TXANGOA
60 urtetik gorakoentzako txangoa
Lanteno

10.20 Ostirala
18:00 OROZKO
AUZOETAKO BATZAR NAGUSIA
Udal Osoko bilkura aretoa

10.20 Ostirala
18:30 LAUDIO
MERKATARITZA FESTA
APILL elkarteak antolatuta
Herriko saltokiak

10.20 Ostirala
20:00 AIARA
ARABAKO BERTSOLARI TXAPELKETAKO KANPORAKETA
Aiarako Euskararen Egumak Izorriako Txokoa

10.21 Larumbata
14:00 AIARA
AIARAKO EUSKARAREN EGUMAK
Babarrun jana, hitzaldia eta ginkanaren sari banaketa
Zuhatzako txokoan


10.22 Igandea
09:30 URDUÑA
BASO-BAINUA
Udazken gastronomikoa
Izena emateko: 945 38 43 84
Alondegia

10.22 Igandea
10:00 URDUÑA
BURU OSASUNAREN ALDEKO IV. IBILALDIA
Laudio eta Amurriotik abiatuko eta Luia ondoren egongo da horniketa puntua.
Izen-ematea 3 euro
Nerbioiko Parke Lineala

10.23 Astelehena
19:30 Amurrio
IRAKURKETA KLUBA TXANI RODRIGUEZEKIN
Udal liburutegia

INFO +
aiaraldea.eus

Kartelera



AMURRIO ANTZOKIA
Las chicas están bien
URRIAK 15,16
IGANDEA ETA ASTELEHENA
(5 / 3,75 euro)
19:00



LEZEAGA ARETOA
Un feliz acontecimiento
URRIAK, 16
ASTELEHENA (Doan)
18:00



AMURRIO ANTZOKIA
¡Salta!
URRIAK 22, 23
IGANDEA ETA ASTELEHENA
(5 / 3,75 euro)
19:00



LEZEAGA ARETOA
El divorcio de Viviane Amsalen
URRIAK 23
ASTELEHENA (Doan)
18:00

erreportajea



Buru osasunerako zerbitzuetarako sarbidea bermatzea aldarrikatu du Asasam elkarteak

Buru Osasunaren Nazioarteko Egunaren testuinguruan, administrazio publikoek duten arduraren jarri du fokua Asasam elkarteak, eta Aiaraldean dagoen baliabide falta kritikatu du. Buru osasunaren aldeko IV. martxa egingo dute urriaren 22an.



Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Agerraldia egin zuten Asasam elkarteak, urriaren 10ean ospatzen den Buru Osasunaren Nazioarteko Egunaren testuinguruan egingo dituzten jardueren berri emateko. Laudioko udalbatza aretoan egin zuten, eta bertan izan ziren Aiaraldeko udalerrietako ordezkariak ere.

Asasameko kideek buru osasuna giza eskubide unibertuala dela azpimarratu nahi dute aurtengo hitzorduan, eta eskualdeko baliabide faltaren gainean jarri dute

fokua. Halaber, gogorarazi dute buru osasuneko zerbitzuetarako sarbidea bermatzea administrazio publikoaren betebeharrak dela, eta eskari zuzena egin diete eskualdeko udal ordezkariak.

Kalitatezko buru osasuna bermatzeko hainbat faktore determinante jarri zituen Asasamek iragan asteko agerraldian, eta guztiei tokikotasunetik heltzeko beharra adierazi du.

Psikiatrikoan sartzea

Borondatearen kontra psikiatrikoan sartzea pertsonaren onerako egiten den jarduerak dela nabar-

mentu du Asasamek, eta horri katu du kalitatezko zerbitzu integrala jasotzeko zaindu beharreko lehenengo faktore determinantea. Esku hartze "delikatua eta zaila" dela nabarmendu dute elkarteak kideek: "Erabaki hori osasun mentalaren arloan har daitekeen erabakirik zailenetakoa da eta zorrotasun eta zaintza handiarekin egin behar da, pertsonen eskubideak errespetatuz".

Uste dute badaudela hobetzeko kontuak borondatearen kontrako esku hartze horietan. Alde bategatik, esku hartzeetan parte hartzen duten ertzainek uniformerik gabe

Buru osasuneko zerbitzuetarako sarbidea bermatzea administrazio publikoaren betebeharrak dela gogorarazi du Asasamek

aritzea gomendatzen du 2022ko Ertzaintzaren Jarduteko Gidak. Eskualdean jaso diren kasuetan, ordea, prozedura hori jarraitu ez dela salatu du elkarteak, baita familia zein hezitzaileen eta Osakidetza artean dagoen koordinazio falta ere kritikatu du.

Maite del Rio Asasameko kideak Buru Osasunaren Nazioarteko egunaren testuinguruan elkartearen sarreratutako podcast elkarrizketa batean honela azaldu du egoera: "Ez dugu kritikatzeko horrelako kasuetan esku hartzen duten erakundearen jokabidea. Baina egia da Ertzaintzak 2022an

erreportajea

jarduteko gida bat jarri zuela indarrean. Gida horretan gomendioa jasotzen da agenteak kaleko jantzita joan daitezela nahi gabeko sarrera denean. Gomendio hori aplikatzeko baino ez dugu eskatzen, frogatuta baitago uniformedun langileek une horretan buruko gaixotasuna duen pertsonaren egoeran eragin dezaketela."

“Gomendio hori aplikatzeko baino ez dugu eskatzen, uniformedun langileek une horretan buruko gaixotasuna duen pertsonaren egoeran eragin dezaketelako”

Baliabide falta

Aiaraldean buru osasunari heltzeko dagoen baliabide falta da Asasamen beste kezka nagusietako bat. Araban baliabide asko Gas-



erreportajea

teizen metatzen direla salatu dute: "Aiaraldean 3 bizitoki plaza daude bakarrik buru osasun arazoak dituzten pertsona guztientzako".

“Ikuskapen handiko etxebizitza bat Aiaraldean, hori da eskatzen duguna. Hiru plazako etxebizitza bat dugu, baina ikuskapen baxukoa da”



Hain zuzen, ere bizitoki plazak Aiaraldean ezartzea izan da elkarrearen aldarrikapen historikoetako bat: "Ikuskapen handiko etxebizitza bat Aiaraldean, hori da eskatzen duguna. Hiru plazako etxebizitza bat dugu, baina ikuskapen baxukoa da", azaldu du Del Riok. "Ikuskapen baxuko etxebizitzetan, gizarte-hezitzaileak egunean ordu batzuk ematen ditu, etxebizitzaren funtzionamendua egokia dela kontrolatzeko. Aldiz, gainbegiratzeko handiko etxebizitza batean, 24 orduko jarraipena egin behar da. Osasun mentaleko arazoak dituzten eta beren kabuz bizitzeko gaitasun autonomorik ez duten pertsonen zuzenduta dago".

Gisa horretako baliabideak behar izan dituzten eskualdeko pertsonen plaza eskatu dutenean Gasteizera bideratu dituzte. "Hori gizarte-zerbitzuen mapak ezartzen dituen jarraibideen aurka doa, deserrotze bat baitago. Familiarekiko distantzia bat markatzen da, eta, erabiltzaile bere inguruetik kanpobizikidetzak nukleoberribet egitera dago behartua".

Baliabideen zentralizazioaz gain, eskualdeko erabiltzaileek Foru Aldundietako muga administratiboekin ere egiten duten topo, Aiaraldeko udalerririk bizkaitarretatik biztanleek udalerririk arabarretan dauden osasun zerbitzuak baliatzeko duten ezintasuna ere faktore erabakigarritzat jotzen dute el-



kartetik. Egoera horren aurrean, baliabide gehiago jartzea eta burukrazia murriztea proposatu du Asasamek.

Zerbitzu komunitarioak

Mari Angeles Arbaizagoitia Asasameko lehendakariak buru osasunean inbertsiorik egiten ez dela salatu du, eta kalitatezko zerbitzuen garapenean aurrera egiten jarraitzeko beharra azpimarratu. "Egoera hori areagotu egiten da biztanle gutxiagoko eremuetan, hala nola Aiaraldean", aldarrikatu du.

"Zerbitzu komunitarioak gehiago garatu behar ditugu, behar dutenei kalitatezko zerbitzua eskaintzeko. Gaixotasun mentala duten

“Pandemiak ikusgarritasun handiagoa eman zion buru osasunari, baina neurriak eta inbertsioak falta dira”



Ekintza ugari egin ditu Asasamek buru osasunaren garrantzia aldarrikatzeko. Urriaren 17an

pertsonak ez ezik, familiak ere artatzen dira. Familia funtsezko pieza da osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonengan", aldarrikatu du Maite Del Riok. "Nik lehen pertsonan esan dezaket Asasami esker aurrera egin ahal izan dudala. Hasieran denbora asko behar izaten duzu egoera barneratzeko eta onartzeko. Buruko gaixotasun kasu baten inguruko zalantzaren bat duenak, jakinaren gainean jar dadila; Asasamen gaude, baita ere, informazioa emateko. Laguntzeko eta orientatzeko prest gaude".

Asasam elkarteak

Duela 30 urte sortu zen Asasam elkarteak Aiaraldean. Osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonen

familiak bultzatuata ekin zion lanari. Maila sozialean pertsona horiei babes ematea da Asasamen helburu nagusia.

Lehenengo hamarkadan hazkunde handia izan zuen elkarteak. Denborak aurrera egin ahala, ordea, hainbat arazori eta murrizketari egin behar izan zioten aurre elkarteak: 2008ko krisia, COVID-19aren pandemia... Horrek erakundearen aldetik inbertsio falta bat suposatu du, eta zailtasunak eragin dizkio elkarteari beharra duten erabiltzaile guztiak artatzeko. "Estankatuta egongara, ezgara behar bezala hazi, erabiltzaileek dituzten behar eta premiei dagokienez", azaldu du Maite Del Riok. Azken urteetan gaia asko soziali-

erreportajea



lagunarteko futbol partida jokatuko dute La Milagrosako ikasleekin batera. **Aiaraldea.eus**

zatu dela aitortu du Del Riok, baina tabuak jauzi diren arren, inbertsioak ez dira behar beste iritsi osasun mentaleko alorrera. "Pandemiak ikusgarritasun handiagoa eman zion buru osasunari. Esaterako, Madrilgo Diputatuen Kongresuan planteatu ziren hainbat gauza, ordura arte zegoen tabuarekin hautsi zutela zirudien. Baina ez da garapenik egon dauden beharrei eman beharreko erantzuna emateko. Danok dakigu pandemiak geroztik buru osasuneko arazoak gora egin dutela; nagusiki gazteengan, baina baita pertsona nagusiengan ere. Buru osasuneko arazorik izan ez duten pertsona nagusi askok, depresioa, isolamendua... paira-

tu dituzte pandemian zehar". Urtez urte erabiltzaile gehiago jasotzen ditu Asasamek, baina baliabideak, ordea, 2008an zituzten berdinak dira oraindik: "2008tik ez dugu hazkunderik izan baliabide aldetik. Astean aisialdira bideratutako bi ordu, eta kudeaketara bideratutako beste jardun erdi bat. Ez dugu langile berririk izan, baina, kontrara, artatzen ditugun kasuen kopuruak nabarmen egin du gora". Laudioko Gardeta auzoan duten espazioa eretxiki geratu zaie; zentro pisko-sozial bat dute bertan. Gaur-gaurkoz ez dira erabiltzaile guztiak sartzen bertan, eta bi arreta-txanda egin behar dituzte egunean; goizez eta arratsaldez.




Aiaraldea TikTok-en

BIDEO BERRIAK ASTERO
IKUSI ETA HARPIDETU!



WWW.TIKTOK.COM/
@AIARALDEA



WWW.AIARALDEA.EUS



kultura

Sariak pilatzen jarraitzen du Esti Urresolaren lehenengo film luzeak, *20.000 especies de abejas*. Zinemaldian ez ezik, nazioarteko beste bi zinema jaialditan ere jaso ditu aitortzak azken hilabetean.

Lau sari berri eskuratu ditu Esti Urresolaren *20.000 especies de abejas* filmak



'20.000 especies de abejas' filmeko lantaldea Zinemaldian. Gari Garaialde

Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Donostia Zinemaldiaren 71. ediziotik bi sari berrirekin itzuli da Esti Urresola, eta *20.000 especies de abejas* filmak aitortzak pilatzen jarraitzen du. Donostiako jaialdiko Zinemira saila inauguratu zuen Urresolaren lehen lan luzeak iragan irailaren 22an, eta Sebastiane Saria jaso du bertan.

Sebastian Sariak Zinemaldia iraun bitartean LGTB+ komunitatearen balio eta errealitatea hobekien islatzen duen filmari eskaintako aitortza da. GEHITU elkarteak eta Arantxa Echevarria eta Jose Mari Goenaga zinemagileek osatu dute

epaimahaia, eta Urresolaren zinta aukeratu dute, "trans haurtzarok eta haien familiek egiten duten trantsizioa argi eta garbi erakusten duelako, gu guztiontzat enpatiazko erreferenteak eta loturak sortuz".

Bigarren sari bat ere ekarri du besapean Urresolak Donostiak. EITB Saria: Egile Berriak aitortza jaso du zinemagile laudioarrak, *20.000 especies de abejas* filmak nazioarteko zinema-jaialdian izan duen proiektioagatik.

Nazioarteko aitortza gehiago
Euskal Herritik kanpo, bi sari gehiago eskuratu ditu Urresolaren lanak azken astean. Helsinki Nazioarteko Zinemal-

diaren 36. edizioko publikoaren saria jaso du; eta baita Seulgo Haur Zinemaldiaren 11. ediziotako film luzeen nazioarteko saileko sari nagusia ere.

Epe laburrean beste bi nominazio jaso ditu *20.000 especies de abejas*ek. Alde batetik Europako Ikusleen Zinemaren 2024ko LUX Saria jasotzeko aukerak ditu; "Europako Parlamentuak bulzatutako saria, Europako balioen unibertsaltasuna, Europako kulturaren aniztasuna edo Europar Batasunaren eraikitze-prozesuari buruzko gaiak erakusten dituzten filmak aintzateste".

Bestetik, Europako Zinema Akademiaren sarietan ere hautatua izan da, beste 18 lanen artean.

Estreinalditik 150.000 ikusle izan ditu Espainiako Estatuko zinema aretoetan, eta beste 28 herrialdeetan proiektatua izan da

"Zinema fenomeno berria"
Urresolaren *20.000 especies de abejas* "zinema independentearen fenomeno berria" bilakatu dela nabarmendu du filmaren ekoiztetzeak. Estreinalditik 150.000 ikusle izan ditu Espainiako Estatuko zinema aretoetan, eta beste 28 herrialdeetan proiektatua izan da. Orain plataforma digital desberdinetan ere ikus daiteke. Berlingo zinema jaialdian hasi zuen nazioarteko aitortzen segida, Sofia Otero gazteak interpretazio onenaren zilarrezko hartza irabazi zuenean. Orduetik jaialdi askotatik igaro da sariaren zerrenda handituz. Berriki, Espainiako Estatua Oscar Sarietan ordezkatzeko atarian geratu da.

Bertso eskola jarri nahi dute berriz martxan Orozkon



Potolari bertso eskolako kide batzuk Euskararen Egunean. Aiaraldea.eus

Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Bertso eskola berriz martxan jarri nahi dute Potolari elkar-teko kideek. Berez, duela 15 urte baino gehiago sortu zuten eskola, eta orduan ekin zioten lehen klaseak emateari, baina dinamika ez du jarraipenik izan.

Egun, Orozkoko Eskolan ematen dute bertsolaritza, Lehen Hezkuntzako eskola-arautuaren barruan, eta Bizkaiko Bertsozale Elkarteko kideak arduratzen dira saio horiek dinamizatzeaz, hasiera batean Potolariko kideek sustatu zituzten arren. “Beti izan dugun arantza hori: bertso eskolari jarraipenik eman ez izana gazteen artean, klaseetatik kanpo”, aitortu dute Orozkoko elkarteko kideek. Euren ustez, “etenaldia” ematen da bertsolaritzaren transmisioan haurrak DBHra igaro eta Laudion ikastera igarotzen direnean.

Horregatik nahi dute bertso eskola osatu eskolaz kanpoko jarduera gisa, herriko gazteek ere harremana mantendu dezaten kultura horrekin. Lehen Hezkuntza 6. mailako eta DBHko ikasleei bideratutako eskola izango da, eta klaseak ostiral arratsaldetan eskaintzea aurreikusitakoak. Izena emateko potolari bertso@gmail.com helbidera idatzi behar da, parte

hartzailearen izen-abizenak, adina eta harremanetarako telefono bat zehaztuta. Iragarri dutenez, momentuz ez du inork izena eman eskolan, baina jendea lotzeko ahalegina egingo dute, Orozko “herri bertsozalea” dela uste baitute.

DBHra igarotzen diren gazteen artean bertsoarekin harremana mantentzea izango da eskolaren xede nagusia.

Urteko dinamika

Potolari bertso eskolak hainbat jarduera egiten ditu urtean zehar Orozkon bertsolaritza sustatzeko. San Joane jaietan bertso kalejira egiten dute eta bertso saioa, aldiz, sanantolinetan. Udazkenean, ordea, bertso bazkaria egiten dute urtero, sona handiko bertsolarien parte hartzearekin.

Hainbat lan berri eta sorpresa ditu Lyrikanek esku artean

Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Fase berria abiatu zuen Lyrikanek bere musika ibilbidean duela urtebete baino gehiago. Doinu elektronikoko argitaratzeak jorratzeari ekin zion, eta erronka jarri zion bere buruari: hilabetero abesti eta bideoklip berri bat plazaratzea.

Eta horretan aritu da azken urtean. Iragan irailaren 5ean plazaratu zuen bere azken sorkuntza, *Lova Lova* izeneko kanta. Beti bezala, dHastHBeats ekoizlea izan du bide-lagun, eta berarekin batera garatu ditu datozen hilabeteetan aurkeztuko dituen proiektuak ere.

Izan ere, estudioan murgilduta igaro du Lyrikanek uda, eta hainbat lan berri prestatu ditu, “azarotik aurrera” plazaratzeko asmoarekin. “Kanta ugari grabatu ditugu denbora gutxian, eta bakoitza noiz argitaratu aztertzen gabiltza”, jakinarazi du sortzaileak. Ez du askoz gehiagorik aurreratu nahi izan, baina adierazi du abesti berriek “kalitatean jauzi” bat ematea ekarriko dutela. “Madrilgo artista batekin aritu gara grabatzen, adibidez. Baina udarako utziko dugu kantu hori, sasoi horretarako aproposa delako”, iragarri du. Garai horretarako ere utziko dute Mark L arri-gorriagarrarekin eginiko beste

kolaborazio bat. “Potenzial handiko gaztea da eta abesti nahiko serioa atera zaigu”.

“Proiektu oso zoro” bat

Baina, aipatutako kantuez gain, beste proiektu bat ere du Lyrikanek esku artean, “oso zoroa”. Bere hitzetan, orain arte egin duen “gauzarik handiena” izango da, eta dHastHBeats ekoizleak eginiko lana gorai-patu du batez ere. “Bere konfort gunetik atera da eta soinu ezberdina lortu du, diskoteka kutsukoa, oso originala”. Hiruzpalau abesti izango dira guztira, baina oraindik ez dute zehaztu noiz eta nola plazaratuko dituzten.

BOR-BOR PODCASTAK

Solasaldi zikloa

Astelehenero 20:00etan sarean



8 atal

- **Gizontasun eredu berriak** Ibai Fresnedorekin
- **Zahartzarora umore eta ikuspegi feministatik** Kaitin Allenderek
- **¿Por qué y cómo podemos empoderarnos las mujeres migrantes?** Merlin Medinarekin
- **Txaotitis, borroka transmaribolloak** Ira Pereirarekin
- **Nola egin aurre indarkeria matxistari?** Aiora Epelde Renteriarekin
- **Kulturgintza, euskalgintza eta feminismoaren arteko zubiak** Maialen Akizurekin
- **Zaintza ikuspegi komunitariotik** Ainhoa Garaiorekin
- **Emakumea, espetxea eta artea** Itziar Morenorekin



araba álava
foru aldundia diputación foral

Laia

kultura

Arte Hartze zikloa aurkeztu zuten Artziniegako Museoan, udazken igandeetan dizpilina anitzetako artistak batuko dituen ikuskizun maratoia. Urriaren 7an egin zuten estreineko saioa; Euskal Idazleen Elkartearekin antolaturiko, *Zuhaitzekin Solasean* emanaldia.

Arte Hartze zikloak sormena loratuko du udazkeneko igandeetan



Artziniegako Museoan aurkeztu dituzte Arte Hartze zikloa eta Literatura Eragin ekimena. Aiaraldea.eus

Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Artziniegako Museoak besoak zabalik jaso zituen Aiaraldeko Kultur Faktoria eta Euskal Idazleen Elkarte, iragan asteburuan abiatu zen Arte Hartze sormen zikloaren nondik norakoak aurkezteko. "Bide emankorra opa dizuegu. Bai zuei eta bai artista gazte berri guztiei, literaturan eta arte ezberdinetako diziplinetan arintzen direnak. Artziniegako Arteak emango dizue lehen arnasa!", aldarrikatu zuen Paki Ofizialdegi museoko zuzendariak aurkezpeneko hitzaurrean.

Aiaraldea Ekintzen Faktoriako kultur ildoak, *sormena hostoz hostolelopean*, ikuskizun zikloa antolatu du udazken honetarako. Urriaren 8tik abendura bitarte,

arte dizpilina anitzetako ikuskizunak eskainiko ditu, bi igandean behin. "Artistak elkartu eta diziplinak uztartuko ditu Arte Hartze zikloak: akrobaziak eta literatura, kontzertu bat eta arte bisualak, nazioarteko irrintzilariak eta bailarakoak, antzinako langintzak eta dantza garaikidea, eta abar eta abar", azaldu zuen Ekaitz Goienetxeak, Aiaraldea Ekintzen Faktoriako kultur kudeatzaileak.

Zikloak sortzaileak eta publikoa elkarrengana hurbiltzea du xede. Hori dela eta, ikuskizun bakoitzaren ostean "prozesu kreatiboaren ostean "prozesu kreatibo biluztuko" dute, solasaldirako tartea irekiz. Goienetxearen hitzetan, "ikuskizun batek atzean duen lana erakustarazi eta sormenaren gorabeherak, zirrarak, ikarak, buruhaustea eta marabillak ezaugarrazteari tartea irekiko diogu".

Zuhaitzekin solasean

Urriaren 8an abaiatu zen Arte Hartze zikloa Artziniegako Arteko Gure Amaren santutegiaren inguruetan. Bertan, Zuhaitzekin solasean ikuskizuna eskainiko zuten, 17:30etatik aurrera. Ikuskizuna Euskal Idazleen Elkarteak sustatutako *Literatura Eragin* dinamikaren estreinako emanaldia ere izan zen igandekoa. Elkarteko kide den Garazi Albiuak azaldu zuenaren arabera, elkartean "pozarren" daude egitasmoa Araban hasi eta bertatik Euskal Herri osora zabaltzeagatik.

Igandean, Roug Elea konpainiako akrobatek ikuskizuna eskaini zuten idazle eta literatur zaleek gogoko dituzten testu laburrak ozen irakurtzen zituzten bitartean. Berriki Espainiako

"Artistak elkartu eta diziplinak uztartuko ditu Arte Hartze zikloak: akrobaziak eta literatura, kontzertu bat eta arte bisualak, nazioarteko irrintzilariak..."

Literatur Saria jaso duen Patxi Zubizarreta idazlea izango da igandeko emanaldiko gonbidatuetako bat, beste askoren artean. Zubizarretak ere ez du gonbitea inguruko artistei luzatzeko aukera galdu: "Horixe gonbitea. Inguruko artistak etor daitezten. Ez dute zertan literatur zaleak izan: izan daitezke eskultoreak, izan daitezke dantzariak, pintoreak...".

Sarrerak eta egitaraua

Honezkerok eskuragarri daude Arte Hartze zikloko sarrerak. Internet bidez 35 euroko bonoa jarri dute eskuragarri ikuskizun guztietaz gozatzeko. Orotara sei ekitaldi izango dira eta bakoitzean bi ikuskizun baino gehiago eta solasaldiak egongo dira. Kultur Faktoriaren webgunean kontsultatu daiteke programa osoa.

babestutako edukia

BONOAK ETA INFO+
KULTURFAKTORIA.EUS

Arte HARTZE

ZIKLOA 2023

SORMENA HOSTOZ HOSTO

HURRENGO EMANALDIAK

'METEO' + 'BELARRIPREST'

2023/11/05 · 18:00

10€ · Aiaraldea Ekintzen Faktorian

Zuzeneko kontzertu multimedia esperimentalak, **Miren Narbaizaren** eta **Itziar Garaluceren** eskutik: eguraldiaren eta klimatologiaren gaineko hausnarketa bat, musikaren eta arte bisualen bidez. Ondoren, **Amia Bono** aktoreak "nire lehen sortzelan euskaraz" taularatuko du.

Musika + Arte bisualak
+ Antzerkia + Performantzia

ARTE EMAN FESTA

2023/12/02 · Egun osoan zehar

10€ · Aiaraldea Ekintzen Faktorian

Kultur Faktorian urte osoan zehar **prozesu kreatiboak** garatu dituzten sormen egonaldietako eta sormen beketako artisten topaketa eguna. Argazki erakusketak, instalazio artistikoak, dantza piezak, bideo proiektzioak, errezitaldiak, bakarriketak...

Arte diziplina ugari

'ARTXIBO BILUZIA' + 'PANPIN HAUTSIEN DANTZA' + 'FOREVER'

2023/11/19 · 18:00

10€ · Aiaraldea Ekintzen Faktorian

Izan daiteke dokumentu bat akzio fisikoaren detonantea? **Metrokoadroka sormen laborategia** amaitzen ari den antzezlan berriena edukiko dugu taula gainean: hutsik geratutako karpeta bat, antzerkiaren baliabideekin betetzen saiatuko dira. Aurretik, **Idoia Hatxek** piano kontzertua eskainiko du, emakumeengan ezarritako etiketak berrinterpretatzeko proposamen musikala. Tartean, sormenaren hasiera fasean dagoen dramaturgia testu batirakurriko du **Maite Aizpurua**.

Antzerkia + Pianoa + Errezitaldia

'EMCUMEAK' + ZIKLO AMAIERA

2023/12/17 · 17:00

Mahaingurua DOAN | Antzezlanak 5€
Aiaraldea Ekintzen Faktorian

Aiaraldeko kulturaz, **Arte Hartze Zikloaz** eta hurrengo erronkez hausnarketa kolektiboa egitera gonbidatu nahi ditugu eskualdeko sortzaileak eta publikoa bera. Zikloa amaitzeko, barre egingo diogu bai geure buruari eta bai kultur industriari. **Zelako Kultur Ideiak** Kooperatibaren eskutik, euskal emakume sortzaileen 'macdonalizazioa' agerian uzten duen satira musikala antzetzuko dute **Itxaso Payak** eta **María Riverok**.

Antzerkia + Mahaingurua + Partehartze dinamikak

BABESLEA

araba álava
foru aldundia diputación foral

LAGUNTZAILEAK

kirola



“Giltzarrapon argi utzi genuen garrantzitsuena ondo pasatzea izango zela, gozatzea eta elkarri laguntzea”

IZARO RAMOS (Amurrio) GILTZARRAPO KLUBEKO EMAKUMEZKOEN TALDEKO KAPITAINA DA. ALAVESEKIN AKORDIOA SINATU ONDOREN, KIROL PROIEKTUAK LEHEN DENBORALDIARI EKIN ZION IGANDEAN.

Testua **Aitor Aspuru Saez**
Argazkia **Angel Font**

Noiz bururatu zitzaizuen emakumezkoen taldea sortzea?

Beti izan dut Amurrion espazio bat falta zelaren sentsazioa, emakumeoi jokatu eta kirol-esparru horretan maila serioagoan lehiatu ahal izateko aukera ematen diguna.

Egia da batzuk futbol-talde batean geundela, baina giroz aldatu nahi genuen, gure herrian kuadrillako lagunekin jokatzeko gogoia genuen. Orduan herriko hainbat klubekin elkartzen hasi nintzen, emakume-talde bat ateratzeko zuten interesa ezagutzeko. Giltzarrapo nirekin jarri zen harremanetan, eta asko gustatu zitzaidan haiengandik jasotako tratua; haiek ere erronkan konfiantza eta ilusioa zutela argi zegoen. Maiatzean kuadrillako lagun batzuk kafea hartzeko geratu ginen eta ideia aipatu nien, Giltzarrapok nesken taldea ateratzeko aukera eskaini zidatela esanez. Besterik gabe, lanari ekin genion, eta herriko lagunengan pentsatu genuen, animatuko zitezkeelakoan, garrantzia handirik eman gabe futboleko jokatu izan zuten edo ez. Talde kiroleko jarduerarekin gozatzeko gogoia zuten neskak besterik ez genituen nahi eta sinestesina izan zen baietzak entzutea. Hemen argi utzi genuen garrantzitsuena ondo pasatzea izango zela, gozatzea eta elkarri laguntzea.

Zein urrats eman zuten horretarako?

Gure abenturan izena eman zuten nesken kopuruak gora egin zuela jakin orduko, klubarekin, Alaves taldearekin eta udalarekin bilerak hasi ziren. Askok lagundu ziguten, eta prozesu guztia askoz errazagoa izan zen. Pixkanaka, helbururantz abiatu ginen, urte askoren ondoren, gure herrian berriro emakume-talde bat izateko. Beste urrats bat babesleak bilatzea izan zen, Giltzarrapo herriko klub txikia baita. Amurrion, ELKARLANek hasieratik eskaini digu laguntza, eta Opebide ere gure babesleatoko bat da.

Zenbat emakumezko eman du izena?

Orain 25 neska ditugu fitxarekin. Hala ere, entrenatzen edo taldean herriko 30 neska gaude. Ikus dezakezuenetz, topera gaude, eta asko harritu dira, baina ni ez nintzen harritu. Emakume askok futboleko edo beste edozein kiroleko jokatu nahi dute, ez zitzaidan oso zaila izan haiek aurkitzea, are gehiago, asko etorri ziren taldeari buruz galdezka.

Gauzak zailxeago jartzen dizkigute, baina ilusioz eta gozoz dena posible da. Ea herrian ba ote dagoen nesken oinarrizko futbola. Gure herriko neskatoek futboleko jokatzeko beste herri batzuetara joan behar ez izateko.

Aurretik futbol jokalaririk ziren? Lehenengo aldiz talde batean daude? Nongoak dira?

Gure taldean, nesken erdiak ez du inoiz futboleko jokatu. Erronka handia zen, baina ez zuten beldurrik, ikasteko eta gauza berriak probatzeko gogoia zuten. Horretarako, ni kapitain gisa eta bi entrenatzaileen eskutik, jokalarien motibazioari eusten saiatzen gara, eta mundu guztiari erakutsi nahi diogu gu ere futboleko aritu gaitzkeela, txikitari jokatzeko aukerarik izan ez arren. Inoiz ez da berandu.

Beste askok atzean utzi ditugu beste talde batzuk, herriko eta gure lagunekin jokatzeko ilusioagatik. Oso aurtak garelako eta esperientzia sinestezina dela badakigu. Amurriokoak eta Luiaondokoak gara.

Zein kategorian hasi zarete jokatzeko?

Aurten, talde berria izanik, Arabako lehen regionalean jokatzeko dugu. Aurreko asteburuan kopa jokatzeko hasi ginen, eta lehen partida izugarria izan zen, 1-1 Amurrion. Miren Toquero gure taldekideak gol olinpikoa egin zuen.

Zeintzuk dira taldearen helburuak aurten?

Zalantzarik gabe, sortu dugunaz eta gure giro onaz gozatzea. Kapitain gisa, zerbait ezinbestekoa dela iruditzen zait; gu zaintzea, alegia. Bakoitzak bere onena eman dezala, eta emakumeak futboleko ere indartsuak izan daitezkeela frogatu dezala.



BARIKUAK Plaza egunak

elkartzeko, jolasteko, jateko, edateko eta dantzatzeko!

Faktorian
17:00-00:00



Bariku guztietan,
doako jarduerak:
entsegu irekiak, musika,
dantzak, dastaketak,
gau-magikoak, tailerrak...



URRIAK 20
ENTSEGU IREKIA
20:00ETAN
Dantza garaikidea
AMEBA
Paula Urquijo

URRIAK 27
ENTSEGU IREKIA
20:00ETAN
Antzezlan entsegua
PATATA MINAK
Ane Gebara &
Aitor Vinagret

AZAROAK 3
ENTSEGU IREKIA
20:00ETAN
Marrazketa & Soinua
IKATZA & GIROA
Joseba
Agirrezabalaga



kirola

TXIRRINDULARITZA

Gotzon Martin omendu zuten larunbatean Laudioar Txirrindularitza Elkarteko gazteek



Maillotak turkatu zituzten. Aiaraldea.eus

Testua
Aitor Aspuru Saez

Arabako txirrindularitzako eskola kiroleko proba lehiatu zen Laudion urriaren 7an, arratsaldeko lauretatik aurrera. Gazteentzat hitzordu berezia izan zen, tropelean joan ordez, erlojupeko igoeira egin baitzuten Motxoteka-

letik abiatuta. Adinen arabera ibilbide luzeagoak egin zituzten eta eguraldia lagungarria izan zen. Horrez gain, Laudioar Txirrindularitza Elkarteko taldekideek Gotzon Martin Euskaltel Euskadiko profesional orozkoarra omendu zuten eta maillota aldatu zuten berarekin.

MENDIZALETASUNA

Indartsu hasi zen Urduñako "Alondegia Xtrem" zikloa, Alex Txikonon konpainian

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Urriaren 6an hasiera eman zioten Urduñako Alondegian antolatutako *Alondegia Xtrem, mendi fest* zikloari. Luxuzko gonbidatu batekin hasi zuten jarduera maratokia. Izan ere, Manaslu mendira egindako espedizioa izan zuen hizpide Alex Txikonnek; alpinista bizkaitarrak 2022ko neguan eta oxigenorik gabe eskalatu zuen munduko zortzigarren gailurra, alpinismoaren historian mugarri berria jarriz. Anekdotentzako eta etorkizuneko proiektuentzako tartea ere eskaini zuen solasaldian. Aurretik, Loraldia elkarteko kideek ibilbide botanikoa eskaini zuten hiriko plaza eta kaleetan barrena. Gainera, argazki erakusketa atondu dute

Alondegiko areto nagusian. Baina *Alondegia Xtrem* zikloa hasi besterik ez da egin, Azaroaren 12ra arte hainbat jarduera eta hitzaldi egingo dituzte. Egitarauarekin jarraituz, irailaren 23an inauguratutako *boulderraren* aurkezpena egingo dute, nahiz eta dagoeneko zabaldua egon, azalpen formalak emateko momentua egongo da urriaren 20an. Hilaren 27an, aldiz, bi ikusentzunezko gozatzeko aukera egongo da. *Monarca expedition: un vuelo vivac record del mundo* eta *Kilimanjaro, una experiencia inclusiva* filmak, hurrenez hurren. Azaroaren 3an Urduñako emakume kirolariak batuko dira eta Alondegian bertan hitzaldi informala eskainiko dute bertaratu nahi duen edozeinentzat.

HIPIKA

Sari eta lorpen ugarirekin itzuli dira etxera Maialen Lazkano eta Arrietta Ruiz



Espainiako zein Euskadiko hezte klasikoko txapelketetan parte hartu dute. Aiaraldea.eus

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Marka esanguratsuak lortu dituzte Arrietta Ruiz Goiri orozkoarrak eta Maialen Lazkano Ugarte aiarrak Espainiako zein Euskadiko hipika txapelketetan. Lehena abuztuaren 29tik irailaren 3ra bitartean jokatu zen Madrigo Campo Villa klubean, eta haur kategorian lehiatu ziren bi aiaraldearrak bertan.

Lazkanok 8. postua lortu zuen eta Ruiz 18. geratu zen. Bi markak nabarmenezko modukoak direla adierazi du euren entrenatzaileak, Andoni Fuentes Unzagak. "44 pertsonak hartu zuten parte guztira eta maila geroz eta altua-

goa da. Lazkano, gainera, Euskadiko onena izan zen proban", nabarmendu du.

Lazkano Euskadiko txapeldun

Irailaren 16 eta 17an, aldiz, Getxoko Galea klubera bertaratu ziren bi gazteak, Aizene Bengoetxea Polorekin batera, Euskadiko hezte klasikoko txapelketan aritzeko.

Bertan ere eman zuten zeresana Aiaraldeko kirolariek. Lazkano lehena geratu zen lehen eguneko proban, eta bigarren, aldiz, bihar munekoan. Modu horretan, txapeldun gisa sailkatu zen haur kategorian. Arrietta, bere aldetik, 2. postuan geratu zen bigarren eguneko proban.

Andoni Fuentes Unzaga pozik azaldu da kirolarien emaitzekin. "Pozik gaude lortutako markarekin eta Aiaraldetik lehiaketari maila eman ahal izatearekin", nabarmendu du.

Okondoko hipodromoan entrenatzen dute kirolari gazteek, duela 5 urtetik. "Hastapenetatik txapelketa mailara arteko ikasketa prozesua eskaintzen dugu, ikasle zein zaldientzat, hezte klasikoko diziplinan".

Beste lorpen batzuk ere erdietsi dituzte Aiaraldeko gazteek azken urtetan. Arrietta Ruiz Goirik, adibidez, hezte klasiko zilarrezko domina eskuratu zuen iaz Espainiako Txapelketan.

TENISA

Euskadiko I. Kros Ligako bi lasterketa Aiaraldean lehiatuko dira

Testua
Aitor Aspuru Saez

Euskadiko I. Kros Liga egingo da urriaren 22tik aurrera. Euskal Autonomia Erkidegoko atletismo klubek eta Euskal Federazioak sustatu dute txapelketa, kirola eta parte hartzea bultzatzeko. Guztira, bederatzi proba izango dira. Urriaren 22an abiatuko da Zornotzan abenduaren 17an amaitzeko Eibarren. Kategoría bakoitze irabazleak plaza lortuko du Espainiako Txapelketan eta kirol federatuko maila guztiak egongo dira, hau da, 16 urtetik gora.

Azaroaren 26an Laudio eta abenduaren 10ean Amurrión izango dira kros lasterketak

Laudion eta Amurrión

Laudio Atletismo Klubak eta Oinkariak Klubak ere parte hartuko dute ligan eta kros lasterketa bana antolatuko dituzte Aiaraldean. Lehenengo proba azaroaren 26an izango da Laudio, Ellakurin, eta abenduaren 10ean Amurrión bigarrena, Reforren. RFEAko egutegi nazionalen egongo dira biak.

Baina, kirolari federatuentzat ez ezik, eskola kirolarientzat eta herri lasterketan parte hartu dutenentzat ere tokia egongo da proba bietan.

herriko plaza

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.eus helbidera eta Aiaraldea.eus atarian plazaratuko dugu. Urriaren 25ean argitaratuko da hamabostekariaren hurrengo zenbakia.



Untzizu

Zorionak Untzizu!!!
Muxu handi bat zuren familiaren partez!

Familia



Amets

Happy Birthday our little star! Keep shining every day! MZ!

Familia



BIDALI
ZURE
ZORION
AGURRA!

Denborapasak

ERRAZA

		9		2		7	8	
			4	1			6	
1		6		9		5	2	4
	1			2	7			
2	8	7	5		6			
	3			4		8	2	
	9	2		6		1		
				8		6		
				4	3			

ZAILA

				8		7		2
	9		7					3
		7	5			4		
	5		8					
					5	3	8	
6			2	3	7		5	
	6	4			3		7	
7						2		
5	2		4			6		9

DENBORAPASEN SOLUZIOAK Sudoku, hitz-gurutzatu eta hitz gezidunen soluzioak webgunean ikusgai: <http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak>

Zozketa



Nafarroako hegoaldeko produktuekin osatutako Errigora ekimenaren saski baten zozketa

Errigora egitasmoaren saski baten zozketa

Parte hartzeko sartu www.aiaraldea.eus atarian **Zozketaren data:** Urriak 20, 15:00etan.

IRAKURKETA GUNEA

OSPA HEMENDIK!

Idazlea: Irati Garamendi

Ilustratzailea: Ane Arzelus

Bilduma: Ortuko bizitza

Argitaletxea: Erein

Ortuko bizitza bildumaren seigarren atala da. Ortuan topa daitezkeen eta kaltegarriak izan daitezkeen animalia eta bereziki zomorroen inguruko liburua.



BIKINI

Idazlea: Garazi Kamio eta Alex Oribe

Argitaletxea: Elkar

Bilduma: Xaguxar

Bullying istorio bat kontatzen du, baina ez biktimaren ez erasotzailearen ikuspegitik, ikusle hutsa den eta egoera deserosoan sentitzen den haur baten ahotik baizik.



JOLAS GUNEA

BLA BLA BLA

Gomendatutako adin-tartea:

7 urtetik aurrera


ZER DA?

Estatu Batuetako espazioaren gobernu-agentziak, NASAK, sortutako ariketa dugu. Pertsona bakoitzaren astronauta izateko gaitasuna nolakoa zen neurtzeko helburuarekin sortu zuten. NASAK ateratako ariketa horren moldaketa egin da ikasleekin jolas moduan lantzeko. Jokorako ikasleak alegiazko testuinguru batean kokatuko ditugu. Horretarako hurrengo esango diegu:

“Imajinatu ilargian zaudetela. Zuen ezkutuko misioa amaitu duzue eta lurrera itzultzeko ordua heldu da. Baina problema bat daukazue. Espazio-ontziaren arazo teknikoak direla eta, ezin da aireratu. Ez dituzue beharrezkoak diren materialak espazio-ontzia konpontzeko. Laguntza bila joateko estaziorik hurbilena 350 kilometrotara dago. Gainera, aireratzeko egin dituzuen saiakeretan espazio-ontziaren atzeko aldea apurtu da eta bertan zegoen guztia galdu duzue. Zerrenda horretan dituzuen 15 gauza horiek bakarrik gelditzen zaizkizue.

Gauza horiek, zuentzako duten garrantziaren arabera ordenatu beharko dituzue. Pentsatu, ahalik eta denbora gehien bizirauteko moduan kudeatu beharko dituzuela dituzuen gauzak”.

Beraz, astronautaren paperean jarri beharko dira. Gauza desberdinen zerrenda emango diogu ikasle bakoitzari. 1etik 15era zenbakiak jarri beharko dituzte, garrantziaren araberrako ordena mantenduz. Gero beste bikotekide batekin elkartuko dira eta idatzitakoaren inguruan eztabaidatu beharko dute.



KOKORIKO

HEZKUNTZA FAKTORIA

Maitasun erromantikoa haur eta gazte literaturan

Orain dela gutxi nire lehengusina liburudendatik bueltan zegoela topatu nuen. LH 5 hasi berri du, aurrenerabezarotan sartu berri da.

-Karletxu, zer moduz?

-Hementxe, eskolan irakurri behar ditudan liburuak erostera etorri naiz.

-Ala, a ver? Itxi ikusten!

Liburuak gainera begiratu nituen eta zur eta lur gelditu nintzen. Hauetako baten kontraportada irakurri nuen; neska “normal” bat bere herriko futbol taldeko gizona maitemintzeko *look* aldaketa bat egiten duenaren historia kontatzen zuen. BENETAN?


Egungoa da sistema patriarkala biziraun dezan eraikitako hezkuntza eredua. Nahikoa da ikasleek eskura izaten dituzten adibideei erreparatzearekin, curriculumetan jasotzen diren edukiak aztertzearekin, transmititzen diren balio lehiakor zein indibidualistek erreparatzearekin... Noski, hori guztia merkatu kapitalistaren mesederako antolatuta dago.

Hori guztia lortzerako bidea, kanpo errealtatea gelara ekartzea da, haurrei haien kabuz hausnartzeko baliabideak eskaini eta eskaintzen diren eredu zein adibideek inongo biolentziarik erreproduzitzen ez dutela ziurtatu. Helburutzat izanda, bizitza erdiguneari jarri eta hura duintzeko tresna eraginkor bilakatzeko ikaskuntza eta irakaskuntza prozesu oro.

Baina zelan lortu hain utopikoa den helburu hori? Biolentziarik gabeko edukiak landu eta espazio seguru nahiz libreak eraikiz, txikien hitza erdiguneari jarri. Ahaztu gabe, hori egiten ez dugunean biolentzia erreproduzitzen ari garela, haien hitza zapaltzen ari garela hauei inongo presentziarik eman gabe; zaintzaren bailoa handiagotuz; afektua nahiz alderdi erlaxionala balioan jarri; eta, azkenik, aniztasuna balio nagusizat izanda.



BAI POLITA
HITZ HORI!



Nahas-Mahas

Ene, baina zenbat modu ditugu TRIKUA esateko? Alboko orrialdean bi modu dituzu, eta hemen hirugarren bat. Eraman hizki bakoitza bere geziak agintzen dizun tokira eta hitz hori zein den asmatuko duzu.

Engainagarriak

Ba al dakizu zenbat triku hiltzen diren errepidea pasa nahian, kotxeak harrapatuta? Guk ere ez dakigu zehatz-mehatz zenbat diren, baina asko eta asko direla ziur da. Gaixoak. Honoko zortzi irudi-zatitxoen artetik erdiak engainagarriak dira, hau da, ez datoz bat irudi nagusiarekin. Bereiz itzazu.



irudi-zatitxoen artetik erdiak engainagarriak dira, hau da, ez datoz bat irudi nagusiarekin. Bereiz itzazu.


- 1
- 2
- 3
- 4
- 5
- 6
- 7
- 8



Bilatu

Gure trikuari barraskiloak, bareak, intsektuak, harrak, txoritxoak arrautzak, zizak fruitu gorriak eta meloiak gustatzen zaizkio. Bilatu eta margotu. Bide batez, elementu bat falta da. Zein?

SOLUZIOAK



Kontra

Aiaraldetik mundura



Inma Gartzia

JAIOTERRIA
AMURRIO (1980)

BIDAIAREN XEDEA
PALESTINAKO ERREALITATEA BERTATIK BERTARA EZAGUTZEKO BIDAIA EGIN ZUEN UDAN



PALESTINA



DESKRIBAPENA

Ekialde Hurbileko estatua da Palestina. Bere lurren kontrol administratibo partziala du. 1946 eta 1948. urteen artean, 700.000 palestinar euren etxeetatik kanporatuak izan ziren, Nakba izeneko exodo masiboan. Geroztik Israelgo Estatua geroz eta lurralde gehiago okupatuz joan da.

AZALERA

6.520 kilometro koadro.

BIZTANLEAK

5,22 milioi biztanle.

HIZKUNTZAK

Arabiera da hizkuntza nagusia

Argitaratzailea: Aiaraldea Kooperatiba Elkarte
Tirada: 10.000 ale.
Maiztasuna: Hamabostekaria
Lege gordailua: BI-1230-2013
Posta elektronikoa: egunkaria@aiaraldea.eus agenda@aiaraldea.eus erredakzioa@aiaraldea.eus
Publizitatea: publizitatea@aiaraldea.eus
Tifnoa: 688 62 53 94
Helbidea: Errotari kalea 4-8 pabilloia, Laudio, Araba. 01400
Telefonoak: 94 656 85 54/688 62 59 00
Web-gunea: www.aiaraldea.eus
ERREDAKZIO OHARRA: Aiaraldea Aldizkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

ESKER BEREZIAK BANATZAILA BOLUNTARIOEI:

Sofia Cisneros, Aitziber Alava, Josu Zabala, Iraia Pereiro, Genma Corbella, Endika Arribas, Christian Alemany, Gartzan Garaio, Aitor Fernandez, Jon Catalan, Iñaki Larrakoetxea, Jabi Asurmendi, Lander Ria, Xabi Ugalde, Alberto Gutierrez, Eunate Ekhiñe

“Palestinarrak kartzela batean bizi dira, Israelek du euren bizitzen kontrola”

Palestinan izan zara berriki. Zerk motibatuta egin duzu bidaia hori?

Betidantik izan dut Palestina ikusteko nahia. Brigada batean joatea zen nire asmoa, baina ezin izan dudanez, nire kabuz joatea erabaki nuen. Duela urte batzuk Jordaniatik sartzen saiatu nintzen, baina garai hartan ezinezkoa zen. Hori dela eta, oraingoan Tel Avivetik sartu naiz, Israel zalduz, eta bertatik jo dut Jerusalemera.

Palestinako zein zonaldeetan izan zara?

Nablusen izan naiz iparraldean, eta Hebron hiria ere bisitatu dut. Palestinan barrena ibiltzea eta jendea ezagutzea zen nire bidaiaren xedea. Bertako biztanleen bizipenak eta esperientziak entzun nahi nituen. Horrela pasatzen nituen egunak, batekin zein bestearekin gelditzen nintzen eta kontatzeko zutena entzuten nuen.

Guest House batean izan nintzen, eta hormak tiroz josita zeuden. Ni iritsi baino hilabete batzuk lehenago militar israeldarrek sartu ziren Nabluseko alde zaharrean eta ostatua tirokatu zuten, besteak beste. Ostaturko jabea sukaldean zegoen lanean eta tiroak gertutik pasa zitzaizkion.

Biolentziak eta errepresioak markatzen du bertako egunerokotasuna?

Bai, leku batzuetan beste batzuetan baino krudelagoa da, baina uneoro daude eraso baten mehatxuak. Militar israeldarrek edota kolono sionistak inpunitate osoz sartzen dira herri eta auzoetan. Tentsio handia dago palestinarren egunerokotasunean. Dena dago militarizatuta. Nire sentsazioa izan da palestinarrek kartzela batean bizi direla. Israelek dena kontrolatzen du; argindarra, ura... Nahi duenean blokeatzen du bata edo bestea. Palestinarren mugikortasuna ere guztiz baldintzatuta dago; *check-point*

Kolono israeldarren presentzia ere handia izango da.

Palestinako lurretan etengabe hedatzen ari dira kolonia israel-darrak. Militarrez inguratuta, abiadura bizian eraikitzen dituzte herriak. Etengabe aldatzen da Palestinako mapa, geroz eta lur gehiago kentzen diete. Israelgo gobernua dirutza ordaintzen die kolonoiei bertan bizitzearren truke. Hebron bizi izan nuen kasu berririk bat. Alde zaharrean familia palestinar bat hil zuten etxea erakutsi zidaten. Bertakoak honekero ez dira ausartzen bertan bizitzera. Kolono juduak dira orain alde zaharreko eraikinetako goiko pisuetan bizi direnak. Balkoie-

tatik zaborra bota eta txiza egiten diete Hebroneko merkaturak daukien palestinarrei. Nire begiekin ikusi dut hori.

Egoerak eztanda egin du orain, nola bizi duzu bertako egoera?

Entzun nuenean Israelek “dena eman behar zuela” Palestinaren aurkako erasoan, nire buruari galdetu nion zer gehiago egin zezakeen honezkero egin ez duena. Genozidio bat da Israelek bertan egin behar duena, eta gai dira horretarako. Inpunitate izugarria daukate, ez bakarrik militarrek, baita kolono judutarrek ere.

Kontaktua daukazu bertan ezagututako jendearekin?

Pare batekin bai, harremana dut oraindik. Nablusen ezagutu nuen gizon baten semea egoerak eztanda egin baino pare bat egun gutxiago atxilotu zuten, militarren gertatutako zerbait grabatzen ari zirela. Uste dut oraindik ez dutela semearen berrik.

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:

